

H E R N A N I

**HIRI BAT NOLA IRAKURRI
IKASI NAHIAN**

**Ramón Leturiondo
Inés Flores
María José Valverde**



Txertoa argitaldaria

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia: 1996-Uztailak 12

“HIRI BAT NOLA IRAKURRI IKASI NAHIAN”

Hernani Aztergai
Egungo Arazo Demografikoak
Eta
Hirigintza– Bilakaera Arakatzeko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa.
Unitate didaktiko baten programaketa

Ramón Leturiondo Altube
M^a Inés Flores Población
M^a José Valverde Lamsfus

TXERTO A ARGITALDARIA

767 Posta-Kutxatila
20080 Donostia

Argitaralpen honen zatirik, azalaren diseinua barne delarik, inolaz ere ezingo da erreproduzitu, almagenu, edo transmititu ahal izango, eta ezta inolako medio elektriko, kimiko, mekaniko, optiko, grabateka edo totokopia bidez ere, argitaratzailearen aurrebaimenink gabe.

Azaleko portada: Pello López. *Bertan* 7. Donostia

© Ramón Leturiondo Altube
M^a Inés Flores Población
M^a José Valverde Lamsfus

© Txertoa Argitaldaria
Olaeta plaza 2/g
20011 Donostia
Tel. (943) 45 97 57 - 46 09 41

Legezko emaitza: Na- 1.553-1996
I.S.B.N.: 84-7148-321-1

AURKIBIDEA

*Sarrera	7
1.— DBHko Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiako helburu orokorrekiko taxututako unitatea.....	13
2.— Unitateak aurreko eta ondorengo ikasturteekin duen lotura	17
2.1.— Aurreko ziklo eta ikasturteekin duen lotura	
2.2.— Batxilergoarekin duen zerikusia	
3.— Unitate didaktikoaren helburuak.....	19
3.1.— Eduki kontzeptualekiko	
3.2.— Prozedurekiko	
3.3.— Jarrerekiko	
4.— Unitate didaktikoaren edukiak	
4.1.— Zer ulertzen da Geografiaz? Zein dira Hernaniko paisaia baldintzatzen duten elementu geografikoak?	25
4.2.— Munduko zenbait arazo eta eredu demografikoren azterketa, Hernaniko errealitate demografikotik abiatuz. Zenbait kontzeptu, prozedura eta jarrera.....	45
4.3.— Gaur egun Hernanik aurkezten digun morfologia arkitektonikoan oinarrituz, hirigintza— bilakaeraz zenbait kontzeptu, prozedura eta jarrera: Ikerketa lantxo bat	99
5.— Ebaluazioa: Antolaketa, irizpide eta baliabideak	141
5.1.— Ebaluaketa — irizpideak	
5.2.— Ebaluaketa— baliabideak	
6.— Aniztasunaren trataera: Curriculum— aren egokitzapenak	147
6.1.— Desberdinkatze kurrikularrak	
6.2.— Curriculum— aren berrindartzeak	

SARRERA

I) Unitate didaktikoaren eraketa:

Lana honako eduki— multzoetan banatuta dago:

- * I. ATALA: Zer ulertzen da Geografiaz? Zein dira Hernaniko paisaia baldintzatzen duten elementu geografikoak?
 - Edukiak eta Ekintzak: Kontzeptualak / Prozedurarekikoak / Jarrerak
 - Material eta baliabide didaktikoak
- * II. ATALA: Demografiari buruzko zenbait kontzeptu, prozedura eta jarrera, Hernanik gaur egun aurkezten dizkigun ezaugarrietatik abiatuz
 - Edukiak eta Ekintzak: Kontzeptualak / Prozedurarekikoak / Jarrerak
 - Material eta baliabide didaktikoak
- * III. ATALA: Hirigintza— bilakaera, aztergai dugun herriko morfologia arkitektonikoa landuz.
 - Edukiak eta Ekintzak: Kontzeptualak / Prozedurarekikoak / Jarrerak
 - Material eta baliabide didaktikoak

II) Unitate didaktikoaren funtsezko xedeak

Unitate didaktiko honetan bi dira elkarlotu nahi izan ditugun helburuak :

- a) Ingurunea ezagutzea: Horretarako eta zuzeneko behaketaren bidez, errealitate fisiko nahiz sozialari hurbildu gatzazkio, azterketa analitikoa burutzeko asmoz.
- b) Behin datu, inpresio nahiz intuizio guztiak jaso ondoren, arakatze formal eta arrazional bat egiteari ekin diogu, pentsamolde formala taxutu nahian ikasleengan.


Bi helburu hauek elkarlotzeko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa deritzagu aproposena, kontutan hartuz ahalmen logiko– abstraktua beharrezkoa dela pentsamolde formala gauzatzeko.


III) Unitate didaktiko honen banaketa denborari begira:

Lau hilabetetarako dago bururatua guztira 45 saio dituen unitate hau. Hara hemen, nola dauden banatuta saioak atalka:

1.Atala:	7 saio
2.Atala:	25 saio
3.Atala:	13 saio
	45 saio


Ondorengo orrialdeetan ikusi ahal izango da nola dagoen planteatuta denboralizazioa atalka eta saioa:





DENBORALIZAZIOA

Iharduerak saioka



**1.– DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO
GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIAKO HELBURU
OROKORREKIKO TAXUTURIKO UNITATEA**

**UNITATE DIDAKTIKOAREN EDUKIEN ETA ALORREKO HELBURU
OROKORREN ARTEKO ZERIKUSIA**

1.–HELBURU NAGUSIA:

“Ikasleek partaide diren komunitate sozialen aniztasuna ezagutu eta preziatu behar dituzte, bertan planteaturiko proiektu, balio eta arazoetan parte hartu behar dute, dituzten eskubide eta betebeharren gaineko kontzientzia osoan betiere, eta jatorriak, arrazak, sexuak, erlijioak, iritziak edota beste zirkunstantzia pertsonal nahiz sozialek eragindako diskriminazioak arbuiaraziz.”

HELBURU HONEKIN ZERIKUSIA DUTEN EDUKIAK:

- **Inmigrazioaren fenomenoak**
 - ♦ Hernaniko inmigrazioa zertan den seinlatu.
 - ♦ Hernaniko biztanleen asimilazio–maila aztergai hartu.
 - ♦ Arrazismo–kutsurik dagoen ala ez aztertu.
 - ♦ Gaur egungo euskalduntasun kontzeptuaz hausnartu: Definitzerik ba al dago? Diskriminazio–izpirik azaltzen al da?.
- **Ikaslea bizi den hiriko hirigintza–arazoak:**
 - ♦ Hernaniko hirigintzaren prozeduraren analisisa.
 - ♦ Gaur egun hiriak betetzen dituen funtziorik nabarmenen iruzkina.
 - ♦ Hirigintza–proiektuez eztabaida sorrarazi, ikasleen konpromezu pertsonalak sustatu.
 - ♦ Zerbitzuei begira hiriko auzoen artean dauden desberdintasunen azpimarraketa, elkertasunezko jarrerak eraraziz.

2.– HELBURU NAGUSIA:

“Gertakari sozialen funtzionamendua gidatzen duten prozesu eta mekanismoak ezagutu behar dituzte, ezagupen horiek egungo gizartearen ulerpenean erabili, gizarte horien arazo larrienak aztertu eta iritzi pertsonal kritiko eta arrazoizkoa osatu.”

HELBURU HONEKIN ZERIKUSIA DUTEN EDUKIAK:

- ♦ Gaur egungo arazo demografikoen azterketa.
- ♦ Munduko bilakaera: Eskualde azpigaratuen hazkunde bizkorra.
- ♦ Mundu garatuaren zaharkitzea, bere ondorioekin.
- ♦ Jaiotze–kontrolaren beharrik? Abortoari buruzko eztabaida.
- ♦ Populazio aktiboaren banaketa: Euskadik jasaten diharduen krisi ekonomikoaren aurrean, birregituratu al daiteke oinarri ekonomikoa 3.sektorea –zerbitzuena, hain zuzen– sustatuz? Hori izan al daiteke konponbiderik egokiena?.Egin arazo honen balorapena.
- ♦ Munduko arazo demografikoez jabetu, honako gai hauek aztergai hartuz: Populazioaren hazkunde azkarra; abortoa; mundu garatuaren zaharkitzea; birregitratze ekonomikoak; hirugarren sektorearen garrantzia ekonomia aurreratuetan , e.a.

3.– HELBURU NAGUSIA:

“Ondare natural, kultural, linguistiko, historiko, artistiko eta soziala baloratu eta errespetatu behar dute, haren babesak eta hobekuntzak eskatzen dituzten ardurak hartuz, atseginerako iturburu–gisa onartuz eta garapen indibidual nahiz kolektiborako baliabide–gisa erabiliz.”

HELBURU HONEKIN ZERIKUSIA DUTEN EDUKIAK:

- *Lehen atalean*, Hernaniren kokapena aztertzerakoan, paisaia geografiko bat zer den esplikatzeke, ingurugiroaren balorapena azpimarratzen ahalegindu gara, ikasleak bere herria ondare naturala bailitzan gorde dezan. Ondorioz, espazio naturalak zaintzeko eta

begirunez tratatzeko konpromezu pertsonalen garapena litzateke helburu honekin lotutako eduki garrantzitsuenetarikoa bat.

- *Hirugarren atalean*, ostera, hiriko ondare historiko-artistikoaren iruzkina eginez, jakinmina nahiz babesa eta hobekuntzaren premia kimutzen ahalegindu gara, geroztiko belaunaldiei ere gozatzeko baldintzetan hel dakien.

4.– HELBURU NAGUSIA:

“Arazoak konpondu eta azterketa nahiz ikerketa txikiak burutu behar dituzte, tresna kontzeptualak eta Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloko oinarritzko ikerketa-teknika eta prozedura bereziak aplikatuz”

HELBURU HONEKIN ZERIKUSIA DUTEN EDUKIAK:

- Behaketa geografiko bat burutu, Hernaniko paisaiak aurkezten dizkigun elementuen begiraketa eta miaketaren bitartez. Baliogarri izan beharko litzateke ikasleei beste iruzkin batzuk ere egin ahal izateko.
- Ikerketa-lantxoak: Hernaniko hirigintza-bilakaera Erdi Arotik XX. mende bitartera, aurkezten duen morfologia arkitektonikoa arakatzuz.

5.– HELBURU NAGUSIA:

“Aho, ikono, estatistika eta kartografi informazioa lortu eta erlazionatu behar dute, iturburu desberdinak eta, nagusiki, egungo komunikabideak erabiliz. Informazio hau modu autonomo eta kritikoz tratatuko dute, lortu nahi den helburuaren arabera; besteei komunikatzen jakin behar dute, era egituratu eta ulergarri batez”.

HELBURU HONEKIN ZERIKUSIA DUTEN EDUKIAK:

- *Informazio kartografikoa*: Hernaniko mapa topografikoa, nahiz aire-fotografiaren lanketa.

- *Informazio estatistikoa*: Gaur egungo munduak (Euskal Herrikoak eta Hernanikoak bereziki) eskaintzen dizkigun datu demografikoen trataera estatistikoa:
 - ♦ Tasak atera (hildakoenak; jaiotzenak; berezko hazkundeari dagozkionak, e.a.)
 - ♦ Grafikak burutu (lerrobakardunak; barrenak; sektorialak; triangeluararak.)
- *Ikonoen bitarteko informazioa*: Herriko ondare arkitektonikoaren iruzkina eginez, hirigintza nahiz arkitekturaren historia burutu.
- *Ahozko informazioa*: Inkestak burutuz eta zenbait pertsona nahiz erakunderi (Udalkideei esate baterako) zuzenduz.

6.— HELBURU NAGUSIA:

“Talde-lanak egin eta, jarrera konstruktiboa, kritikoa eta tolerantia erakutsiz, eztabaida eta debateetan parte hartu behar dute, iritzi eta proposamenak behar bezala argudiatuz eta ezadostasuna nahiz elkarrizketa giza eta gizarte-arazoen konponbide gisa baloratzuz.”

HELBURU HONEKIN ZERIKUSIA DUTEN EDUKIAK:

- *Lanaren balorazioa* hiru maila desberdin hauetan:
 - ♦ *Lan indibiduala*.— Atal bakoitzeko hastapen-prozeduretan, datuen trataeretan hain zuzen. Autodiziiplina pertsonala nahiz bakoitzaren balioa eta autoestima lantzeko.
 - ♦ *Talde txikiko lana*: Behin emandako datu guztiak (grafikak, portzentaiak, mapak, tasak...) era indibidual batez landu ondoren, lau edo bost kidez osaturiko taldeek gatazka konkretuak aztertuko dituzte antzeko irizpideetara heldu arte —kontsentsua erabiliz— gainontzeko ikasleei beren ikuspuntuaren berri emateko.
 - ♦ *Azkenik, klase osoak* hartuko du parte mahainguru batean, edota Institutuko aldizkarian argitaratzeko artikulua bat burutzen e.a. Ondoren, ezadostasunak egon arren, planteamenduek garbi gelditu beharko lukete, (horretarako argudioak izango liriteke biderik erabiliena).

2.– UNITATEAK AURREKO ETA ONDORENGO IKASTURTEEKIN DUEN LOTURA

AURREKO ZIKLO ETA IKASTURTEEKIN DUEN LOTURA

Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren arteko desberdintasunik nabarmenena oinarri psikopedagogikoetan datza eta ez horrenbeste epistemologikoetan.

Lehen Hezkuntzan, ikasleak duen inguru-kontzeptua esperientzia zuzenaren fruitua da; inguruez ikuspegi indibiduala, subjektiboa eta bitala izango da nagusi ikaslearengan. Ikuspegi psikopedagogiko hau kontuan hartuz, *Lehen Hezkuntzak* ingurunearen *ezaguera esperimental*a eta *subjektiboa* izan beharko luke derrigorrez.

Ikasleak, Lehen Hezkuntzan honako trataera psikopedagogiko hau beharko luke izan ingurunea arretaz eta begirunez aztertzeko:

- Paisaia naturalaz nahiz herriko morfologiaz INPRESIOAK jasoz, ikasleek INTUIZIO SUBJETIBOA erabili beharko lukete ikasbide bezala. Beharrezkotzat joko genuke zentzu honetan, “INGURUNEA ESPERIMENTATZEA” ume umetatik, norberaren herria eta ingurune naturala denon ondare garrantzitsu bat bezala baloratzu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, pentsamolde formal eta arrazionalago baterantz jo beharko litzateke; *lehen zikloan* oraindik esperientziak eta ezaguera subjektiboa eta partziala izango dira nagusi; *bigarren zikloan*, berriz, ikasleen ahalmen logiko-abstraktua (argudio psikopedagogikoa), nahiz errealtatea esplikatzeko behar diren kontzeptuen zailtasuna (argudio epistemologikoa) direla-eta, errealtatea arakatzeko sakontasuna eta konplexitatea nagusituz joango dira.

Alde honetatik, Unitate Didaktiko honen atalen helburuak bat letozke neska-mutilen pertsonalitatearen garapenarekin: Hara,

- *Pentsakera formal eta arrazionalaren moldeaketa*: Ez da adin hauetan nahikoa “errealitatea esperimentatzearekin”, azterketa sakon eta argudiatu bat behar baita.
- Gazte baten indefinizio ideologikoa eta pentsakerarekiko noraeza argitzeko bide bezala ere planteatzen da; ondorioz, egungo munduak – ez bakarrik Hernanikoak edota Euskal Herrikoak – aurkezten dizkigun zenbait arazoez, *definizio pertsonal eta heldua* lortu beharko litzateke. (Jaiotzaren kontrola; zaharkitzea; abortoa; hirietako biziguneen arteko desberdintasunak....)

BATXILERGOAREKIN DUEN ZERIKUSIA

Batxilergoko Gizarte-Zientziei dagozkien ikasgaietatik (Espainiako Historia, Egungo Munduaren Historia, Geografia, Artearen Historia eta Ekonomia), bi dira unitate didaktiko honetan garatzen direnak:

- Geografia (Geografia Fisikoa; Demografia; Hirigintza)
- Artearen Historia (Zenbait estilo arkitektonikoren azterketa.)

Jakina da Batxilergoak ikaskuntza-iharduera sakonagoa duela eskakizun, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan harturiko oinarritzko ezagutzei buruzko gogoeta-lana eta azterketa kritikoa sakonagoak direlarik. Ez dira aztertutako gaien guneak errepikatu behar, baizik eta gune horiek berak zabaldu eta sakondu.

Ikasleek metodo zientifikorako hurbilketa zehatzagoa bideratuko duen kontzeptu eta teknikan sakonduko dute.

Pentsamendu abstraktua eta gaitasuna garatuz doan heinean, badirudi aurreko etapan hastapenetan zegoen pentsamendu hipotetiko-deduktiboa sakondu egiten dela, metodo zientifikoa modu sistematiko batean eratuz.

Hezkuntza-etapa honetan areagotzen da Gizarte-Zientzien izaera propedeutikoa, ikasleari halako arauak edo ereduak emanez, bere ezagutza arrazionaliza dadin.

3.– UNITATE DIDAKTIKOAREN HELBURUAK

1.– EDUKI KONTZEPTUALEKIKO HELBURUAK

- Geografiak duen konplexitate zientifikoaren ulermena. Paisaia geografiko jakin bat faktore askoren fruitua dugu, guztiak elkarlotuta prozedura dinamiko eta aldatzaile batean: Hauxe litzateke garbiro jaso beharko luketen ideia.
- Geografia fisikoari eta giza–geografiari dagozkien atalen bereizketa.
- Paisaia bat aztertzekeo beharrezkoak diren zenbait kontzepturen ezagupena; hala, paisaia karstikoa, klima atlantiarra, eskala, sestra–kurba, urrunkidetasuna, populakuntza bildua, populakuntza sakabanatua, puntu kardinalak, sektore ekonomikoak...
- Gizarteak lurralde ezberdinekin ezarritako erlazioen ezagupena, ondorioz giza–paisaia desberdinak sortzen direlarik. Ezagupen honek erakusten digu espazioa nola erabiltzen den edota baliabide naturalak nola ustiatzen diren.
- Gaur egungo arazo demografikorik larrienen ezagupena eta ulermena. Helburu hau ezin izango da arazoen ezagupenean soilik gelditu; jarrera pertsonal bat ere lortu behar da. Hain gaurkoak diren arazo demografikoek –gehiegizko populazioa, Europako populazioaren zaharkitzea, inmigrazio–arrazismoa, abortoa– ezin gaituzte hotz utzi. Arazo hauetaz egin daitezkeen hausnarketak, heldutasun pertsonal baten froga ezin hobeak ditugu.
- Mundu Garatu (1. mundua) eta Azpigaratuaren (3. mundua) arteko bereizketa demografikoak, ondo seinalatuak geldi daitezela. Bereizketa hau egin ahal izateko, beharrezkoak izango ditugu zenbait kontzeptu demografiko: Hala, heriotze–tasa, jaiotze–tasa, berezko hazkundera, migrazio–motak, adin–piramideak, e.a. Kontzeptu hauek guztiak ondo mamitzea eta ulertzea izango dugu beste helburu nagusienetariko bat.

- Hiri baten taxukeran zerikusirik duten faktoreen analisisa eta ulermena. Faktore horien artean, hiriaren pertzepzioa eta hirigintzan eragina duten ihardueren azterketa nabarmenduko genituzke.
- Zenbait estilo arkitektonikoren ezagupena eta beren arteko bereizketa, ezaugarri formaletan oinarrituz. Hala, erromanikoa, gotikoa, Euskal gotikoa, barrokoa, modernismoa, historizismoa (Neo-euskalduna) eta arrazionalismoa.
- Hiri baten morfologia “irakurtzen” nahiz hiriaren funtzioak zein diren zehazten jakitea.

2.– PROZEDUREKIKO HELBURUAK

- Informazio kartografikoa lantzen jakitea. Horretarako, ondoko kontzeptu hauek ondo aplikatzen jakin beharko lukete: Eskala, sestrakurbak, urrunkidetasuna, puntu kardinalak.
- Behaketa geografikoa nola egin era zehatz, objetibo eta zientifiko batez erakutsi.
- Metodologia zientifikoaren aplikazioa:
 - ♦ Hipotesien asmakuntza eta bururapena
 - ♦ Datuak bildu eta esperientziak burutu
 - ♦ Ondorioak, hipotesiekin kontrastatu.
- Burutuko diren lanen aurkezpena:
 - ♦ Sekuentziazio logiko batez eratuak
 - ♦ Aurkezpen txukun, ordenatu eta garbi batez eginak.
- Datu demografikoen tratamendu estatistikoekin zerikusia duten prozedurak. Aldez aurretik, muntako informazioa bildu beharko da informazio-iturburu desberdinetatik. Honako hauek ditugu iturburu erabilienak: mapak, grafikoak, diagramak, kuadro estatistikoak, datu-baseak, testu idatziak...
- Era desberdinetako mapa, grafiko eta diagramak irakurtzea, burutzea eta interpretatzea, taula, koadro estatistiko eta estatistika demografikorako oinarrizkoak diren dokumentuen bidez.
- Hirigintzaren atala, ikerketa txiki bat burutuz landuko dugu, bertan tresna kontzeptualak eta Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloko oinarrizko ikerketa, teknika eta prozedura bereziak aplikatuz. Honela, zuzeneko behaketa izango da erabiliko dugun prozedurarik garrantzitsuenak.

- Aho eta ikonoen bitarteko informazioa lortu eta erlazionatu behar dute iturburu desberdinak erabiliz. Informazio hau kritikoki erabiliko dute, eta besteei era egituratu eta ulergarri batean komunikatzen jakin beharko dute.

3.– JARREREKIKO HELBURUAK

- Giza–Zientzien berezitasunak ezagutu, emaitzen eta ikertzaileen ekarri pertsonalen erlatibotasuna eta behin–behinekotasuna baloratu.
- Gaur egungo joera eta arazo demografikorik larrienak ezagutzeko jakinmina ernarazi.
- Ondare naturala baloratu eta errespetatu, haren babesak eta hobekuntzak eskatzen dituzten ardurak hartuz, atsegineko iturburu–gisa onartuz eta garapen indibidual nahiz kolektiborako baliabide–gisa erabiliz.
- Ondare kultural, artistiko eta historikoarekiko begirunea ernarazi, denon ondare bezala baloratzen eta zaintzen jakin dezaten.
- Era guztietako diskriminazioak –adina, lana, sexua, jaioterri nahiz beste desberdintasunek eragindakoak– gaitzestarazi eta tolerantzia nahiz elkartasunezko jarrerak sorrarazi.
- Lurreko herrien artean dagoen baliabide–banaketa desberdina gaitzestuz, ikuspuntu kritikoa kimutu beren kontzientzia barnetan, elkartasunezko jarrerak lora daitezen.
- Jarrera konstruktibo, kritiko eta tolerantea erakutsi, eztabaida eta debateetan parte hartuz, iritzi eta proposamenak behar bezala argudiatuz eta adostasun–eza nahiz elkarrizketa giza eta gizarte–arazoen konponbide gisa baloratu.
- Norberaren hiriarren babes eta hobekuntzarako ekintzetan parte hartzeko jarrera; halaber, hirietan gertatzen diren diskriminazio–egoeren aurreko salaketa egiteko eta elkartasunez jokatzeko joera sustatu.
- Lanaren balorazioa, hiru maila desberdin hauetan:
 - ♦ *Lan indibiduala*: Autodiziplina pertsonala, bakoitzaren balioa eta autoestima lantzeko.
 - ♦ *Talde txikiko lana*: Bakoitzaren ondorio eta hausnarketa pertsonalen kontraste maila bezala. Antzeko irizpide baterantz jotzen ahalegindu beharko lukete, gainontzeko ikasleen aurrean jarrera berdintsua defendatzeko.

- ♦ *Klase guztiko eztabaida eta debatea:* Jarrera konstruktibo, kritiko eta tolerantia erakutsiz, parte hartu beharko lukete eztabaidan, iritzi eta proposamenak behar bezala argudiatuz eta ezadostasunak nahiz elkarriketa baloratuz.

4.– Unitate didaktikoaren edukiak

4.– Unitate didaktikoaren edukiak

I. Atala

“Zer ulertzen da Geografiaz?”

Hernaniko paisaia baldintzatzen duten elementu geografikoak

4.— Unitate didaktikoaren edukiak

I. Atala

“Zer ulertzen da Geografiaz?”

Hernaniko paisaia baldintzatzen duten elementu geografikoak

Kontzeptuak	27
1. Geografia, giza-zientzia bezala ulertua	
2. Giza-Geografia eta Geografia fisikoaren arteko bereizketa	
3. Zenbait kontzeptu geografikoren ezagupena	
Prozedurak	
* Hipotesi eta arazoen formulazioa: 1. Saioa	28
* Informazioaren bilaketa eta tratamendua:	29
• 2. Saioa: Hernaniko mapa topografikoa	
• 3. Saioa: Hernaniren aire-fotografia	
• 4. Saioa: Sta. Barbara muinotik ikusten den panoramaren iruzkin geografikoa	
* Azalpenerako prozedurak	39
• 5. Saioa: Faktoreen identifikazioa: Analisi eta sintesi iharduerak	
• 6. Saioa: Gatazka bati buruzko eztabaida: Institutu ostean dagoen harrobia premiazkoa al da?	
* Komunikazioa	41
• 7. Saioa: Simulazio-jokoa: Gatazka baten auzia: “Harrobia bai ala ez?”	
Jarrerak	43
1.— Ezaguerarekiko balio eta jarrerak	
2.— Tolerantzia, enpatia eta elkartasunezko jarrerak	
3.— Partaidetza—balio eta jarrerak	

Edukiak

I. Konzeptuak

**Geografia,
giza-zientzia**

- Atal honetan azpimarratu beharrekoa zera da: Geografia ez dela bakarrik puntu geografikoak espazioan kokatzeko aproposa den baliabide bat, zientzia konplexu bat baizik.
- Zientzia geografikoaren funtsezko helburua *paisaia* jakin bat aztertzea litzateke. Bi dira azterketa honetan kontutan hartu beharko genituzkeen faktore motak:
 - ♦ Paisaiaren osagai naturalak, (Geografia fisikoak ikertuko dituenak) eta,
 - ♦ Gizakiek egin dituzten aprobetxamendu eta moldaketak (Giza Geografiak aztertuko dituenak).
 Faktore batzuek eta besteek, elkarlotuta, paisaia bakoitzari bere indibidualtasun propioa emango liokete.

**Giza- Geografia
eta Geografia
fisikoa**

- Edozein ikerketa geografiko burutzeko, beharrezkotzat jotzen da Giza-Geografia eta Geografia fisikoari dagozkion atalak ezagutzea eta kontuan hartzea, beraiek egituratuko baitute egin daitekeen edozein lan geografiko.
- Geografia fisikoa:
 - * Geomorfologia
 - * Klima
 - * Landaretza
- Giza-Geografia:
 - * Geo-demografia
 - * Geografia ekonomikoa: sektore ekonomikoak
 - * Hirigintza

**Zenbait kontzeptu
geografikoren
ezagupena**

- Atal honetan landuko ditugun kontzeptuak honako hauek izango dira:
 - * Eskala
 - * Paisaia karstikoa (dolinak; formazioa...)
 - * Sestra-kurbak
 - * Atlantiar klimari dagokion landaretza
 - * Urrunkidetasuna
 - * Atlantiar isurkiko ibaien ezaugarriak
 - * Puntu kardinalak
 - * Populakuntza (bildua; sakabanatua)
 - * Sektore ekonomikoak

*Hipotesi
eta arazoan
formulazioa*

I.1. Saioa

GALDESORTA • Ikasle bakoitzaren alde z aurretiko ideiak jakiteko, galdesorta hau luzatuko genieke.

- Honekin lortu nahi dena zera da: arazoak adierazten eta ezagutzen jakitea, lan baterako helburuak zehaztea, eta galderak zehazten, usteak azaltzen eta hipotesiak finkatzen ikastea.

- 1.—Zer ulertzen duzu Geografiaz? (Adibideak erabili, nahi baldin baduzu)
- 2.—Zergatik sortu ote zen Urumeako harana? Zer ikusi dauka ibaiarekin?
- 3.—Zergatik du Euskal Herriak klima euritsuagoa Sevillak baino?
- 4.—Erlaziona ezazu Euskal Herriko berdetasuna klimarekin.
- 5.—Zergatik dago kokatua Hernaniko hiribildua leku jakin honetan?
- 6.—Idatz ezazu orrialde batean zein zio edo arrazoi zirela—eta, hautatu ote zuten ingurune hau eta ez besteren bat hiribildua lekutzeko.
- 7.—Hernaniko oinplanoa hartuz, margo ezazu Erdi Aroari dagokion esparrua kolore batez. Zergatik iruditzen zaizu Erdi Arokoa? Nola iruditzen zaizu egokitu dela industrializazioak ekarri dituen aldaketetara?
- 8.—Zergatik ote daude kokatuak Gipuzkoako hiribildu gehienak ibai ertzetan? (Deba, Urola, Oria, Urumea, Bidasoa..)

AZALPENA

Azalpen honen helburua zientzia geografikoaren konplexitatearen berri ematea izango litzateke. Geografiaz mintzatzerakoan ez gara ari puntu bat espazioan non kokatzen den azaltzen bakarrik, espazio geografiko edo paisaia batek barnean biltzen dituen faktore guztiak esplikatzen baizik. Esplikazio honetan honako bi puntu hauek azpimarratzea komeni da:

- Paisaia, faktore anitzen ondorio dela
- Geografia fisikoa eta Giza—Geografiaren arteko bereizketa.

Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

I.2. Saioa

MAPA

TOPOGRAFIKOA

S.S. 64-II-1: 25.000

Azalpen
estrategia

- *Eskala
- *Puntu kardinalak
- *Sestra-kurbak
- *Urrunkidetasuna


Informazioaren
tratamendua

Mapa topografikoa ulertu ahal izateko beharrezkoak diren zenbait kontzepturen azalpena, hala nola:

Margo ezazu mapa topografikoa kolore ezberdinez, sestra-kurbek adierazten dituzten altuera ezberdinak seinatzeko; horrela, margo itzazu behekaldeak kolore argiz eta gailurrak, aldiz, kolore ilunez.

Ondoren, eta mapak eskaintzen dizkizun datuen laguntzaz, erantzun galdesorta honi:

- ♦ Hernani mendiz inguratuta al dago?
- ♦ Ibairik ba al dago?
- ♦ Zein duzu altuerarik handiena?
- ♦ Mapako zein koloretan lekutzen da Hernaniko hiribildua? Zergatik hor? Zer ikusi dauka lekutze honek Urumea ibaiarekin?
- ♦ Marka itzazu berdez Hernanitik ateratzen diren errepideak; norantz doaz? Zein beste hiri edo ingurunerekin erlazionatzen da Hernani gehien bat?
- ♦ Gaur egun Hernaniko hiriak betetzen duen orbana trinkoa iruditzen al zaizu?, nondik nora zabaldu da?
- ♦ Kalkula ezazu kilometrotan Hernani eta Añorgaren arteko distantzia, kontuan hartuz 1: 25.000ko eskala dela.
- ♦ Kalka itzazu Sta.Barbara muinoko sestra-kurbak; halaber, egin ezazu operazio berdina Santiagomendi eta Astigarragakoekin. Berehala ohartuko zara lehenengoan oso juntu daudela; bigarrenean, berriz, bereiztuagoak. Zer ondorioztatzen duzu?
- ♦ Errekatxo baten aldamenean dauden sestra-kurbak kalkatzen badituzu oraingoan, zein forma hartzen dute? Zergatik?
- ♦ Hernaniko hiribildua, zein sestra-kurbaren artean dago kokatua?
- ♦ Urumea ibaia, bere ibilbidetik zein puntutan dago? Zergatik?



MAPA TOPOGRAFIKOA S.S. 64-II-1: 25.000

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

I.3. Saioa

HERNANIREN AIRE— FOTOGRAFIA

Aire-fotografia informazio asko eman diezagukeen baliabidea dugu, paisaia osoaren ikuspuntu panoramikoak ematen baitigu. Saia zaitez ondorengo gida honi jarraituz, paisaia hau aztertzeko osagai esanguratsuenak seinalatzen. Horretarako kolore ezberdinez markatuko dituzu jarraian aipatzen diren esparruak:


*Informazioaren
tratamendua*

- Erdigune historikoa
- 60. hamarkadan, industrializazioa zela-eta, sortu ziren langile-auzoak (Florida; Lizeaga)
- “Hiri-Jardinak” kontsidera ditzakegunak (“Villas” eta “Sta.Barbara”)
- Errepideak: Norantz doa bakoitza?
- Trenbidea: Zergatik ote doa ibai-ertzaren norabidea jarraituz?
- Non kokatzen dira berdeguneak?

- Atera itzazu egin berri duzun azterketaren ondorioak, ondoren datozen gai hauetaz hausnarketa eginez:
- Hernaniren kokapenaren zergatiak.
- Gaur egungo Hernanik osatzen dituen hirigintza-esparruen bereizketa.
- Errepideen norantzak.
- Trenbidearen kokapena herriarekiko.
- Deskriba itzazu Erdi Aroko erdigune eta industrializazioari dagozkion etxe eta kaleen arteko desberdintasunak.



HERNANIREN AIRE-FOTOGRAFIA



*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

I.4. Saioa

PAISAIA JAKIN BATEN IRUZKIN GEOGRAFIKOA Institutu ostean dagoen Sta. Barbara muinotik ikusten den paisaia aproposa iruditzen zaigu iruzkin geografikoa burutzeko. Iharduera honi ekiteko, lehenik eta behin, behaketa pertzeptiboa egin beharko litzateke, segidan ondorio geografikoak ateratzeko. Iharduera pedagogiko honen azken xedea honako hau da: paisaia bat zer den jakitea eta azterketa geografikoa burutu ahal izateko eredu bat aurkeztea.

*Zuzeneko
behaketa*

Sta. Barbara muinotik ikusten diren paisai elementuen ikusketa eta deskribapena:

- ♦ Hernani mendiz inguratutako haran batean kokaturiko herria dugu.
- ♦ Kolore nagusia: berdea (zelaiak, pinadiak)
- ♦ Ibai baten ertzean kokatua
- ♦ Hiribildua (Eliza, Udaletxea) gailentzen da paisaia honetan elementu nagusi bezala.
- ♦ Sakabanaturiko baserriak, soro landuz inguratuak.
- ♦ Kea, kebideak, lantegiak
- ♦ Errepideak
- ♦ Trenbidea
- ♦ Zentral elektrikoa (Elektrizitate-kableak)

Behaketa intuitibo hau egin ondoren, ordena itzazue paisai elementu guztiok, geografiari dagozkion ohiko atal bi hauen arabera:

- Geografia fisikoari dagozkionak:
 - ♦ Erliebea
 - ♦ Klima
 - ♦ Landaretza
 - ♦ Hidrografia
- Giza-Geografiari dagozkionak:
 - ♦ Populazio-Populakuntza (baserritartua, hiritartua)
 - ♦ Sektore ekonomikoak:
 - ♦ Nekazaritza
 - ♦ Industria
 - ♦ Garraioa (errepideak, trenbidea)

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

I.4. Saioa

PAISAIA JAKIN Ekin iezaiozu behatu dituzun paisai elementuak
BATEN IRUZKIN interpretatzeari, ondoren duzun galdesortaren ildo jarraituz:
GEOGRAFIKO

- 1.- Zergatik iruditzen zaizu kokatu zirela lehenbiziko hernaniarrak haran honetan? Zein arrazoi eduki zitzaketen?
- 2.- Erlikeak, garrantzi handia duela uste al duzu? Zergatik sortu ote zen begi bistan dugun haran hau?
- 3.- Zergatik ote da berdea kolore nagusia? Ikusten dituzun landareak, berezkoak, autoktonoak ala gizakiak ekarritakoak (antropikoak) iruditzen zaizkizu?
- 4.- Ibaiaren garrantzia paisaia honetan: Gipuzkoako hiribildu gehienak ibai ertzetan daude kokatuak. Kasualitatea iruditzen al zaizu?. Horrela ez bada, zein arrazoi zirela-eta kokatu ote ziren gehienak ibai ertzetan?
- 5.- Ibaiaren kutsadura zergatik gertatzen ari da? Galarazi al daiteke, zure ustez?. Nola? Guk geuk, zerbait egiterik izango al genuke?
- 6.- Zein arrazoigatik aurki ditzakegu baserri sakabanatuak? Gaztelan, esate baterako, nekazari-herri bilduak ikus ditzakegu; zergatik Euskal Herrian ez?
- 7.- Oso industrializatua iruditzen al zaizu zure herria? Zertan oinarritzen zara hori baieztatzeko? Aipa itzazu industrializazioaren ondoren sortu ziren hiru abantaila eta hiru eragozpen.
- 8.- Egin ezazu etengabeko ke-jaurtiketaren balorazioa.
- 9.- Nekazari-gizartea eta industrializatuaren artean ba al dago diferentziarik? Aipa itzazu zure ustetan hiru nabarmenenak.
- 10.- Zein forma du Hernaniko erdigune historikoak? Norantz hedatu zen industrializazio garaian? Zer ikusi dauka errepede-sarearekin?
- 11.- Aipa itzazu Hernaniko komunikabiderik garrantzitsuenak.

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

*Zuzeneko
behaketa*



*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

*Zuzeneko
behaketa*



*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

*Zuzeneko
behaketa*



*Azalpenerako
prozedurak*

I.5. Saioa

**FAKTOREEN
IDENTIFI-
KAZIO ETA
ANALISIA**

Talde txikitan antolaturik —lau / bost kidez osatutakoak gehienez— eta Gizarte-Zientzietako tailerrean dagoen materialaren laguntzaz, aztertutako gaia ordenatzeari eta finkatzeari ekingo diozue.

*Analisi
iharduera*

- ♦ Iruzkina geografiko batean parte hartzen duten faktoreen sailkapena Geografia fisikoa eta Giza-Geografiari dagozkien atalak azalduz.
- ♦ Paisaia karstikoari dagozkion bost ezaugarri. Konpara ezazue granitozko nahiz buztinezko paisaiekin, ezberdintasunak azpimarratuta gelditu daitezela.
- ♦ Klima atlantiarren dagozkion beste bost ezaugarri, klima mediterraneoarrarekin erkatuz.
- ♦ Landaretza eta ibai atlantiarren bost bereizgarri, landaretza eta ibai mediterraneoarrarekin dituzten aldeak azpimarratuz.
- ♦ Populakuntza bildua eta sakabanatuaren arteko desberdintasunak.
- ♦ Sektore ekonomiko bakoitzeko iharduera ekonomikorik aipagarrienak.

*Sintesi
iharduera*

- ♦ Egin ezazu 10–15 bat lerroko idatzi bat, Hernaniko paisaia identifikatzen duten berezitasun geografikoak azpimarratuz.

*Azalpenerako
prozedurak*

I.6. Saioa

GATAZKA BATI BURUZKO AZTERKETA: INSTITUTU OSTEKO HARROBIA AZTERGAI

Helburu nagusia ariketa honetan honako hau izango litzateke: nola azter daitekeen edozein arazo ikuspuntu desberdinetatik.

Xede hau gauzatzeko, simulazio jokoak erabiliko genuke baliabide bezala. Horrela, talde bakoitzak –gatazkako “rol” ezberdin bat antzetzuz– bere defentsa–estrategia idatzita eta argudiatuta gertatu beharko luke, klaseko beste ikaskide guztiak konbentzitu ahal izateko.

Simulazio-jokoaren prestakuntza: Lau edo bost lagunez osaturiko taldeek jarrera desberdin bat defendatu beharko lukete; hala, 25 ikaslez osaturiko klase batean, bost bat talde aterako lirateke guztira. Talde bakoitzak jarrera desberdinak defendatu beharko lituzke; horretarako, aldeztu aurretik taldekideek beren artean argudioak prestatu beharko lituzkete. Hara hemen talde bakoitzak jokatu beharko lukeen papera:

- ♦ Harrobiaren ugazaba: bere interesen alde.
- ♦ Harrobiaren alboan dagoen baserri baten jabea. Harria ateratzen jarraituz gero, martxa honetan, lantzeko sororik gabe geldituko litzateke.
- ♦ Porlan–lantegi bateko jabea: Gizarte honek dituen eraikitze premia guztiak asetzeko, gero eta porlan gehiago behar da.
- ♦ Ekonomista baten ikuspuntua.
- ♦ Talde ekologista baten ikuspegia.

*Komunikazioa***I.7. Saioa****GATAZKA
BATI
BURUZKO
AUZIA:
HARROBIA
BAI ALA EZ?**

Behin harrobiaren ustiakuntzaren alde edo aurka egoteko bakoitzaren arrazoiak aztertut ondoren, simulazio jokia antzetzeari ekingo genioke.

Auzitegi batean gaude. Baserritar batek harrobiko ugazaba salatu du soroak gero eta murriztagoak gelditzen ari zaizkiolako, harrobiaren ustiakuntza hedakorra dela-eta.

Tribunaleko fiskalak nahiz abokatu defendatzaileak, lekuko desberdinak dakartzate bakoitzak bere ikuspuntua defendatzeko:

Simulazio-Jokua

Porlan lantegi bateko jabea
Ekonomista bat
Talde ekologista
Baserritarra
Harrobiaren ugazaba

Bertan, bakoitzak bere argudioak xehetzen ditu, batzuek harrobiaren alde eta beste batzuek, berriz, kontra.

Simulazioa bukatzeko, klase osoko ikasleek ondorio pertsonalak atera beharko lituzkete eta, bide batez, ideiak mamitu eta argudioen bitartez defendatzen ikasi.

Harrobia geldiarazi ala aurrera jarraitzen utzi?. Bata edo bestea izan erabakia, argi geldi dadila errealitatea ikuspuntu anitzetik ikus daitekeela, eta, beraz, denak direla errespetagarriak eta hein handi batean osagarriak.

Komunikazioa

*Zuzeneko
behaketa*



I. Jarrerak

Ezaguerarekiko balio eta jarrerak

- Informazio bilaketan, jakin-mina nahiz zehaztasun zientifikoa datu-interpretazioan garatu.
- Emaizten edo ikertzailearen ekarri pertsonalaren erlatibotasuna eta behinbehinekotasuna, kontuan hartuz ezagupen zientifikoa eraikitzen den bide bat dela, inola ere ez guztiz eta behinbetirako bukatuta dagoen zerbait.
- Lan zientifikoari dagozkion estrategiak erabiltzen ohitu, arazoak konpontzeko. Estrategia hauetan honako puntu hauek baloratu:
 - ♦ Hipotesiak bururatu aldezturik, abiapuntu gisa.
 - ♦ Esperientziak burutu.
 - ♦ Ondorioak atera eta hasierako hipotesiekin kontrastatu.
- Ordena, txukuntasuna eta logika eraikitzaile garbi baten balorazioa.

Tolerantzia, erpatia eta elkartasunezko balio eta jarrerak

- Errealitatearen atzipenean, gizabanakoen ikuspuntu desberdinen errespetoa eta balorazioa.
- Lanaren balioa azpimarratu:
 - ♦ *Indibiduala*: Autoestima pertsonala lantzeko
 - ♦ *Talde txikiak*: Denon arteko elkarriekin sintesi baturakor berri bat ernarazteko.
 - ♦ *Klase osoa*: Gehien baloratuko dena hemen ikasleen *joko demokratikoa* izango da, alegia, elkarrenganako errespetoa urrezko legetzat hartuta, banan-banan hitzegitea, besteen ideiak baloratzea, e.a.
- Etorkizuneko gizarteez jabetzea eta haienganako elkartasuna erakustea; horrela, baliabide naturalen orekarik gabeko ustiapena kontrolpean jarri beharraz jabetzea.
- Ingurugiroa giza-talde bizi-kalitatearen oinarritzko alderdia dela ikustea.
- Giza-ekintzek ingurugiro eta baliabide naturaletan eragiten dituzten arazo larriez eta arriskuez jabetzea.
- Ingurunea gorde eta babesteko jarrera baikorra sustatzea.

I. Jarrerak

*Partaidetza-balio
eta jarrerak*

- Herri mailan ingurugiroa hondatzeak ekartzen dituen arazoen aurreko partehartze kritikoa, ingurugiroaren kontserbazio eta babeserako jarrera baikorrak bultzatuz. Talde eta instituzioek ingurugiroaren aurrean dituzten eragin ezkorren aurka bultzaturiko iharduera indibidual nahiz kolektiboetan parte hartzea.

4.– Unitate didaktikoaren edukiak

II. Atala

**“Munduko zenbait arazo eta eredu demografikoren azterketa”
Hernaniko ezaugarri demografikoetatik abiatuz**

4.— Unitate didaktikoaren edukiak

II. Atala

“Munduko zenbait arazo eta eredu demografikoren azterketa”

Hernaniko ezaugarri demografikoetatik abiatuz

Kontzeptuak	47
1. Populazioaren bilakaera eta banaketa	
2. Populazioaren mugimendu eta egitura	
Prozedurak	
* Hipotesi eta arazoen formulazioa.....	48
• 1. Saioa	
* Informazioaren bilaketa eta tratamendua	49
• 2., 3. Saioak: Populazioaren bilakaera	
• 4. Saioa: Populazioaren banaketa	
• 5. Saioa: Populazioaren hazkundeari buruzko irizpideak	
* Azalpenerako prozedurak.....	58
• 6. Saioa: Faktoreen identifikazioa: Analisi— iharduera	
• 7. Saioa: Faktoreen identifikazioa: Sintesi— iharduera	
• 8. Saioa: Gatazka bati buruzko azterketa: Hernaniko populazioa zaharkitzearen ondorioak	
* Komunikazioa	61
• 9. Saioa: Bideo— kamaraz jasotako mahaingurua	
• 10 Saioa: Mahainguruaren ondorioak	
* Informazioaren bilaketa eta tratamendua	63
• 11.,12.,13. Saioak: Berezko mugimenduak : Jaiotzak, heriotzak, berezko hazkundera	
• 14. Saioa: Abortoari buruzko “dossier”— a	
• 15. Saioa: Migrazioak: Mapa	
• 16. Saioa: Migrazioak: Testuak	
• 17. Saioa: Migrazioak: Bideo— emanaldia	
• 18.Saioa:Populazioaren egitura: Adin— piramidea: Frantzia / Aljeria	
• 19. Saioa: Populazioaren egitura: Adin— piramidea: Hernani	
• 20. Saioa: Populazioaren egitura: Adin— piramidea: Hernaniko adin— sailkapena	
• 21. Saioa: Populazioaren egitura: Populazio aktiboa	
* Azalpenerako prozedurak.....	92
• 22. Saioa: Faktoreen identifikazioa: Analisi eta sintesi iharduerak	
• 23. Saioa: Mahaingurua: Inmigrazioa aztergai	
• 24. Saioa: Inmigrazioari buruzko inkesta baten buruketa	
• 25. Saioa: Artikulu baten idazketa aldizkarirako	
Jarrerak	97
1.— Ezaguerarekiko balio eta jarrerak	
2.— Tolerantzia, enpatia eta elkartasunezko jarrerak	
3.— Partaidetza— balio eta jarrerak	

Edukiak

II. Kontzeptuak

Atal hau didaktiko eta argiago geldi dadin, jarraian aurkeztera goazen sailkapena prestatu dugu, nahiz eta ez dugun ahaztu behar azkenean faktore aniztasun osoa hartu beharko dugula kontuan.

Populazioaren bilakaera eta banaketa.
Populazio-hazkundearen arazoa: Teoria Demografikoak

Azpiatal honekin lotuta dauden gaiak, jarraian datozen hauek ditugu:

- ♦ Dentsitate-kontzeptua
- ♦ Populazioaren banaketaren faktoreak
- ♦ Dentsitate altueneko eskualdeak
- ♦ Teoria demografikoak:
 - * Malthusianismoa
 - * Antimalthusianismoa

Populazioaren mugimendu eta egitura

Azpiatal honekin harremana duten gaiak, ondoren ipini ditugun hauek dira:

- ♦ Berezko mugimenduak:
 - * Jaiotza-tasa
 - * Heriotza-tasa
 - * Berezko hazkundea
- ♦ Migrazio-motak:
 - * Emigrazioa
 - * Inmigrazioa
 - * Nomadismoa
 - * Larraldaketak
 - * Pendelwanderungen
 - * Opor-migrazioak
 - * Landa-jendearen hiritartzea
 - * Kolonizazioak
 - * Langile-migrazioak
- ♦ Adin eta sexuaren araberako egitura: Adin-piramidea.
- ♦ Populazio aktiboaren araberako egitura.

*Hipotesi
eta arazoan
formulazioa*

II.1. Saioa

- Ikasle bakoitzaren alde aurretiko ideiak jakiteko, galdesorta hau luzatuko genieke.
- Honekin lortu nahi dena zera da: arazoak adierazten eta ezagu-tzen jakitea, lan baterako helburuak zehaztea, eta galderak zehazten, usteak azaltzen eta hipotesiak finkatzen ikastea.

Gizateriak 17 mende behar izan zituen bikoizteko (Kristoren garaian 250 milioi, XVII. mendearen erdialdera 500 bat milioi); gaur egun, berriz, 35 bat urtetan bikoizten gara, eta, honela 5.300.000.000 bat lagun gara munduan dagoeneko. Honen aurrean, ilaran datozkigu kezak eta galderak burura:

GALDESORTA

1. Zergatik ari da sortzen fenomeno hau?
2. Lurrak, denok elikatzeko adina baliabide izango al du?
3. Aurreko galderaren erantzuna ezezkia izan baldin bada, hazkunde bizkor hau geldiarazteko, zein neurri hartu beharko lirateke?
4. Mundu zabal osoan ari al da gertatzen fenomeno berbera? Zein alde bereiz daitezke? Zeren arabera?
5. Zergatik ote daude eskualde batzuk horren populatuak eta beste batzuk hain despulatuak?
6. Gaur egungo teknika aurreratua aplikatu ahal izanez gero, lantzeke dauden zenbait eskualde ekoizten jarri arte, zer ondorioztatuko zenuke? Zergatik ez da horrelako lanik aurrera eramaten?
7. Baliabide-populazioaren hazkunde binomioaren aurrean, jaiotza-kontrola al da konponbide bakarra?
8. Eta jaiotza kontrolpean jartzeari zer deritzozu? Idatz ezazu alde aurretik zure balorazioa, ikuspegi ekonomikoa, soziala, etikoa, e.a. kontuan hartuz.
9. Azken bi hipotesi hauez gain, besterik bururatzen al zaizu? Zein? Esplika ezazu xehetasunez.

Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.2. Saioa

POPULAZIOA- REN BILAKAERA

- Egin ezazu paper milimetratuan grafika lerrodun bat, honako datu hauek erabiliz:



Munduko populazioaren bilakaera		
1650	545 milioi	100
1700	560 milioi	102
1750	725 milioi	133
1800	800 milioi	146
1850	1.100 milioi	201
1900	1.600 milioi	293
1930	2.000 milioi	366
1950	2.500 milioi	458
1960	3.000 milioi	550
1981	4.492 milioi	824
1984	4.800 milioi	880
1990	5.100 milioi	954

♦ Zein fase bereiz ditzakezu?

- Adierazi barren diagramaren bitartez luzatzen diren datuak.

Munduko populazioaren bilakaera kontinenteka					
Urtea	Europa	Ipar-Ertain Amerika	Hego Amerika	Asia	Afrika
1800	180 (%22,0)	12 (%2,4)	6 (%1,2)	500 (%62,0)	100 (%12,0)
1850	266 (%24,0)	40 (%4,0)	20 (%2,0)	672 (%60,0)	100 (% 9,8)
1900	400 (%26,0)	103 (%7,0)	41 (%2,7)	850 (%55,0)	140 (% 9,0)
1950	583 (%24,4)	217 (%9,1)	117 (%4,5)	1250 (%53,0)	200 (% 8,5)
1980	687 (%15,3)	374 (%8,3)	244 (%5,4)	2672 (%59,5)	488 (%11,0)
Bakoitzari dagokion portzentaia	%8,6	%17,5	%13,5	%31,5	%22,5

- Berdina izan al da mundu guztiko bilakaera demografikoa?
- Deskriba itzazu, esate baterako, Europako bilakaera eta Hego Amerikakoa.
- Zein da dakusazun diferentziarik nabarmenena?



Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.3. Saioa

POPULAZIOA- REN BILAKAERA

- Egin ezazu paper milimetratuan grafika lerrodun bat, honako datu hauek erabiliz:

Gipuzkoako populazioaren bilakaera		
1900	195.850	100
1920	258.557	132
1930	302.329	154
1940	331.753	169
1950	374.040	190
1960	478.337	244
1970	631.003	322
1975	682.517	348
1990	692.986	353



- Zein dira bereiz daitezkeen faseak?
- Bat al dator munduko bilakaeraren grafika Gipuzkoakoarekin? Erka itzazu biak, antzekotasunak eta desberdintasunak azpimarratuz.

- Egin ezazu paper milimetratuan grafika lerrodun bat, honako datu hauek erabiliz:

Hernaniko populazioaren bilakaera		
1900	3.672 biztanle	100
1920	5.405 biztanle	147
1930	6.282 biztanle	171
1940	7.093 biztanle	193
1950	8.577 biztanle	233
1960	13.080 biztanle	356
1970	23.338 biztanle	636
1975	30.760 biztanle	837
1990	18.939 biztanle	* 515

* Lasarte Udal independente bihurtu ondoren.

- Behin grafika burutu ondoren, ahalegin gaitezen ONDORIO batzuk ateratzen:
 - * Beti berdina izan al da Hernaniko hazkundera? Bereiz itzazu dakuskizun aldiak.
 - * Saia zaitez aurkitzen fase bakoitzaren zergatiak.
 - * Munduko bilakaera orokorrarekin bat al dator?



*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

II.4. Saioa

POPULAZIOAREN BANAKETA

*Azalpen
estrategia*


- Azal ezazu dentsitatearen kontzeptua adibide frankoren laguntzaz.

*Informazioaren
tratamendua*

- Egin ezazu Espainiako dentsitate–mapa, honako datu hauek erabiliz:

A Coruña	127	Palentzia	25	Toledo	31
Lugo	42	Nafarroa	45	Ciudad Real	26
Ourense	57	Huesca	14	Cuenca	14
Pontevedra	168	Zaragoza	44	Guadalajara	12
Asturias	99	Teruel	12	Albacete	23
Kantabria	88	Bartzelona	508	Jaen	49
Gipuzkoa	316	Tarragona	69	Kordoba	53
Bizkaia	471	Lleida	29	Sevilla	95
Araba	67	Girona	70	Huelva	39
Leon	35	Errioxa	47	Cadiz	120
Zamora	24	Castello	58	Malaga	119
Salamanca	30	Valentzia	164	Granada	59
Burgos	25	Alacant	157	Almeria	43
Soria	11	Murtzia	74	Balear Uhart.	111
Segovia	23	Caceres	23	Las Palmas	143
Avila	25	Badajoz	32	Tenerife	184
Valladolid	50	Madril	474		

- ♦ Probintzia espainiarrak non kokatuak dauden errepasatzeko aukerako ariketa.
- ♦ Margo ezazu mapa kolore desberdinez, dentsitate–multzo esanguratsuen arabera.
- ♦ Zein dira probintziarik populatuena? Zergatik izan daitekeela deritzazu? Aipa itzazu gutxienez, bost zergati.
- ♦ Eta, zein dira, berriz, despulatuena? Erlaziona ezazu beren ekonomia, despulatuena izatearekin.



Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.4. Saioa


POPULAZIOA- REN BANAKETA

• Egin ezazu Euskal Autonomi Elkarteko dentsitate-mapa, honako datu hauek erabiliz:

Informazioaren
tratamendua

Arabako Ibarrak	6,04
Arabako Lautada	244,00
Arabako mendialdea	7,24
Errioxa arabarra	30,00
Gorbeia ingurualdea	15,00
Kantauri arabarra	102,00
Bidasoa Beherea	899,00
Deba Beherea	303,00
Deba Garaia	192,00
Donostialdea	1.049,00
Goierri	203,00
Tolosaldea	140,00
Urola Kostaldea	189,00
Arratia - Ibaizabal	56,00
Bilbo Handia	2.575,00
Durungaldea	282,00
Enkartzazioak	72,00
Gernika - Bermeo	160,00
Markina - Ondarroa	132,00
Plentzia - Mungia	160,00

- ♦ Margo ezazu mapa kolore desberdinez, dentsitate-multzoesanguratsuen arabera.
- ♦ Zein dira hiru horietan, probintziarik populatuena?; eta despopulatuena? Zergatik ote?
- ♦ Konpara itzazu beren artean, Bilbo Handia eta Gorbeia ingurualdea. Zergatik aurki ditzakegu horren dentsitate desberdinak?.



Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.5. Saioa

POPULAZIOA-REN HAZKUNDEARI BURUZKO IRIZPIDEAK ♦ Azpimarra itzazu testu bakoitzeko ideia nagusiak.

Informazioaren
tratamendua

I. "POPULAZIOA ETA IRAUPENA" (MALTHUS)

"Populazioa, oztoporik ez bazaio ipintzen, 25 urteren buruan bikoiztu egiten dela esan daiteke, progresio geometrikoz gehituz. Gaur egungo Lurraren egoera kontuan harturik, giza-eragintzarako baldintza mesedegarrienak egon arren, bizibideak progresio aritmetiko baina arinago ezingo lirarteke gehitu".

Testu
iruzkina

II. "POPULAZIOAREN GEHIKUNTZAZ" (C.CLARK)

"Malthus-en teoriaz, giza-hazkundearen gehikuntzak mundua askoz pobreago egingo zukeen. Baina errealitateak kontrakoa erakusten digu, hain zuzen. Begi bistan dagoena ukatu ezinez, malthusiarrek besterik esaten dute orain: Natur baliabideen agortzea...Baliabideak, berez, ia agortezinak dira eta denbora luzea pasa beharra dago, horiek galtzeko beldur arrazonagarria izan arte...Mundua azpipopulaturik dago oraindik eta baliabide energetiko gehienak oraindik ez daude behar bezala ustiatuta. Bangla Des-ko arazoa ez da elikadurarena izan, politikarena baizik..Gose-arazoa berez, aberastasun banaketaren arazoa da. Eta hau gobernamodu txarretik datorren zerbait da, gobernu libre batek, ez bestek, konpon dezakeena, eta jaiotze-kontrolak ez du honetan zer ikusi handirik."

Sintesi
iharduera

♦ Ordena itzazu testu bakoitzean azaltzen diren ideia nagusienak.

♦ Labor ezazu idatzi batean zertan ez dauden ados aurreko testuen egileak eta zergatik. Garbi gelditu behar zaizuna haxe da: Zer defendatzen duten malthusianistek eta zer, kontra daudenek. Argudiatu jarrera bakoitza.

*Azalpenerako
prozedurak*

II.6. Saioa

FAKTOREEN IDENTIFI- KAZIOA ETA ANALISIA

*Analisi
iharduera*

- Osa ezazu galdesorta hau ahalik eta laburren eta argien:

♦ Mundu Garatuari dagozkion aldi demografikoak.
Erantzuna emateko har itzazu oinarri bezala Gipuzkoako
edota Hernaniko grafikak.

- 1.....
- 2.....
- 3.....

- ♦ Mundu Azpigaratuari dagozkion aldi eta ezaugarriak:

- 1.....
- 2.....

- ♦ Populazio-banaketa eragina duten faktoreak:

- * Fisikoak
- * Giza-faktoreak

- ♦ Munduaren banaketa, dentsitatearen arabera:

- * Dentsitate handiko guneak
- * Dentsitate txikikoak

- Erantzun zuzenak jartzeko, Gizarte-Zientzien Laboratorioko liburutegia nahiz irakaslearen laguntza izango lirakeke, azalpen-estrategia erabiliz batik bat galduta dauden ikasleekin.

*Azalpenerako
prozedurak*

II.7 Saioa

FAKTOREEN IDENTIFI- KAZIOA ETA ANALISIA

Populazioaren hazkunde azkarraren aurrean, aurkako bi jarrera gailentzen dira:

- * Malthus-en teoriaren jarraitzaileena: Populazioa gehitzearen aurkakoak.
- * Populazioa gehitzearen alde daudenena: Jaiotza-kontrolaren aurkakoak.

*Sintesi
iharduera*

- ♦ Egin ezazu bi teoria desberdin hauen deskribapena, bakoitzak dioenaren argudioak xhetuz.
- ♦ Halaber, erlazioa ezazu Munduko hazkunde azkarra, Hernaniko azken urteotako beheraldi demografikoarekin.

*Azalpenerako
prozedurak*

II.8. Saioa

GATAZKA BATI BURUZKO AZTERKETA: HERNANIKO POPULAZIOA ZAHARKITZEA- REN ONDORIOAK

Gaur egun duen hazkunde kaxkarrak jarraituz gero, begi bistakoa da Euskal Herria urte gutxiren buruan erabat zaharkituko dela. Hernani ez da joera orokor honen salbuespen, ezta gutxiago ere. Ikus dezagun laburki zein izan daitezkeen egoera demografiko honen ondorio batzuk:

- * Populazio ekintzaile gutxiago lan egiteko.
- * Zergadun gutxiago egonda, beharginek zerga gehiago ordaindu behar izatea.
- * Jubilatzeke adinaren atzerapena
- * Ekonomiaren hondamena
- * Pentsioak kobratu ahal izateko eragozpenak
- * Zenbait ikastetxe ixteko premian egotea e.a.

ETORKIZUN BELTZ HONEN AURREAN, EZER EGITERIK BA AL DAGO?

Arazo hau aztertzeke, klasean MAHAINGURUA –bideoan jasoa izango dena– eratuko dugu. Talde txiki bakoitzak –4 edo 5 kidez osatutakoak– mahaingururako proposamenak prestatuko ditu, honako puntu hauek kontuan harturik:

- * Mahainguruaren eraketa
- * Moderatzailearen papera
- * Moderatzailearen hautaketa
- * Mahainguruan parte hartuko dutenei luzatzeko, galdesorta baten prestakuntza; bertan, honako ikuspuntuok kontuan hartu beharko litzukete:
- ♦ Hernaniko gaur egungo errealitate demografikoa baldintzatzen duten faktoreak
- ♦ Gerora begira egon daitezkeen konponbideak

Mahaikide bakoitzari galdesorta aldeztu aurretik eman beharko litzaioke, erantzunak denboraz gerta ditzan.

Komunikazioa

II.9. Saioa

**BIDEO-
KAMARAZ
JASOTAKO
MAHAI-
INGURUA****Partaideak:**

- ♦ Herriko alderdi politiko bakoitzeko ordezkariaren bat.
- ♦ Herriko giza-mugimenduen ordezkariak (Erretore jauna, feminista-taldeko kideren bat, sindikalistaren bat...)
- ♦ Ikasle-moderatzailea
- ♦ Teknologi mintegiko irakasle nahiz ikasleren bat, bideo-kamaraz mahaingurua grabatzeko
- ♦ Gainontzeko ikasle guztiak
- ♦ Irakaslea
- ♦ Kanpoko ikusleren bat, triangeluazioa egin ahal izateko; aproposena, Geografia-Historiako irakasle-lankide bat izango litzateke, eta honako hau litzateke bere betebeharra: Mahainguruaren behaketa egitea, ondoren, denon arteko balorazioa burutzeko.

Funtzionamendua:

- ♦ Ikasle-moderatzailea: Bere esanak bete beharko dira, mahaingurua ordenatua izan dadin.
- ♦ Aurkezpenak egitea: Partaide bakoitzak bere azalpena egingo du duen jarrera defendatuz.
- ♦ Ikasleen itaunketa: Aurkezleei ikasleek zuzenean eginiko galderak.
- ♦ Ondorioak.

Komunikazioa

II.10. Saioa

MAHAINGURU-
AREN
ONDORIOAK

Ikasle bakoitzak entzundakoaren laburpena egin beharko luke, bi galdera hauei erantzuna emanaz:

- ♦ Zein dira Hernaniko gaur egungo errealitate demografikoa baldintzatzen duten faktoreak ?
- ♦ Zein konponbide proposatuko zenituzke etorkizunari begira?.

Sintesi
iharduera*Talde txikiak:*

Lau edo bost lagunez osaturiko taldeek kontrasta ditzatela taldekideen laburpenak eta ezadostasunak jaso.

Klase osoa

Talde bakoitzeko bozeramaleak irakur dezala bere taldearen ondorioa, ezadostasunak argi ditzala eta denon artean antzeko ondorioetara heltzen saia daitezela.

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

II.11. Saioa

BEREZKO MUGIMENDUAK: JAIOTZAK, HERIOTZAK, BEREZKO HAZKUNDEA

*Azalpen
estrategia*

Lehenbizi kontzeptu hauen esannahia azaldu beharko litzateke, ondoren, ikasleak aplikatzeko gai izan daitezen:

- Heriotza–tasaren formula
- Jaiotza–tasaren formula
- Berezko hazkundera
- Heriotza–tasaren eragina duten faktoreak
- Jaiotza–tasaren eragina duten faktoreak

*Informazioaren
tratamendua*

♦ Aurki itzazu Hernaniri dagozkion Heriotza nahiz Jaiotza–tasak segidan dituzun datu hauen arabera:

	HILDAKOAK	JAIOTZAK	POPUL. GUZT.
1979	81	247	31.961
1991	69	91	18.939

♦ Zein ondoriotara heldu zara tasak atera ondoren? Kopiatu ezazu zure lan–kuadernoan.

Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.12. Saioa

BEREZKO MUGIMENDUAK: JAIOTZAK, HERIOTZAK, BEREZKO HAZKUNDEA

♦ Egin itzazu paper milimetratuan bi *grafika lerrodun*, aipatzen diren estatuen (Frantzia eta Guatemala, garatu eta azpigaratuen lekuko bezala) heriotza, jaiotza nahiz berezko hazkundearen tasak seinalatuz.

JAIOTZA- TASA

	1960	1965	1970	1975	1980
GUATEMALA	49,50	44,50	39,00	43,50	42,00
FRANTZIA	18,20	17,80	17,10	15,20	14,00

HERIOTZA- TASA

	1960	1965	1970	1975	1980
GUATEMALA	16,20	16,00	15,40	11,30	7,50
FRANTZIA	11,00	10,80	10,40	10,90	10,20

♦ Zein dira bien arteko desberdintasunik nabarmenenak:



- * Jaiotzei dagokienez ?
- * Hildakoei dagokienez ?
- * Berezko hazkundeari dagokionez?





♦ Oraingoan, eta *barren diagramaren* bitartez, adieraz ezazu Mendebal Europako zenbait estatuei dagokien berezko hazkundearen bilakaera.

* Egin itzazu lau *grafika, barren diagrama* erakoak, urte eta estatu bakoitzari dagokion berezko hazkundera adieraziz.

	1870 - 75		1925		1960		1980	
	J.T.	H.T.	J.T.	H.T.	J.T.	H.T.	J.T.	H.T.
ALEMANIA	40,00	26,00	20,00	12,00	17,00	11,00	9,00	11,00
INGALATERRA	35,00	22,00	24,00	12,00	17,00	11,00	13,00	12,00
FRANTZIA	25,00	22,00	17,00	16,00	18,00	11,00	14,00	10,00
ITALIA	36,00	29,00	22,00	17,00	18,00	9,00	11,00	10,00
ESPAINIA	36,00	30,00	29,00	19,00	22,00	9,00	15,00	8,00

♦ Labur ezazu bost bat lerrotan, Europako demografiaren bilakaera azken mende honetan: Zein da gertatzen ari den fenomeno larriena?





Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.13. Saioa

BEREZKO MUGIMENDUAK: JAIOTZAK, HERIOTZAK, BEREZKO HAZKUNDEA

- ♦ Azpimarratu testu bakoitzeko ideia nagusiak
- ♦ Ondoren, jaso itzazu galdereei emandako erantzunak:

I. SANITATE IRAULTZA HERRI AZPIGARATUETAN

Testu
iruzkina

“Populazioaren gehikuntza masiboaren zio nagusia heriotze-tasaren gutxitzean datza. II. Gerrate Mundialeko eraginkortasunik gabeko medikuntzak lekua utzi zien medikuntza- teknika eraginkorragoei. Koste gutxiko produktu kimikoen erabilera hedatuak, XX. mendearen erdialdean iraultza ekarri zuen.

Hirugarren munduko herrietan osasun kanpaina zabalak egin dira izurrien kontra, batez ere urrutira arin heda litezkeen eta beste herrien osasuna mehatxa lezaketzen izurrien kontra. Gaur egun, premiazkoak izan dira neurri batzuk izurrien hedakuntzaren arriskuak ekiditeko, herri aberatsak herri azpiagaratuetatik hurbil baitaude hegazkinari esker. Hirietako egoerak, non txabolak gune aberatsen ondoan aurki baititzakegu, beharrezkoa egin du izurri grabeak desagerraraztea. Era berean, esportaziorako merkantzi ekoizpenak beharrezkoa egin du gaitz batzuen kontrako borroka: Paludismoak, esate baterako, lanerako eskuaren produktibitatea gutxitzen zuen eta europar tekniko eta bitartekoentzat arriskutsua zen. Azkenik, hirugarren munduko populazioa bere bizimoduaren hobetzea eskatzen hasi zenean, medikuntza-ekintza bide merke eta lasterra zen bertako gobernuentzat “zerbait” egiten zutela erakusteko. Mendebal European hildakoen kopuruaren beherakada osasun baldintzak eta bizimodua hobetzearen ondorioa izan zen. Hirugarren munduan, ordea, heriotze-tasa beheraldia ez da bizi-mailaren hobekuntzaren ondorio, egungo medikuntzaren efikaziaren froga baizik.

Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.13. Saioa

Zenbait herri azpigaratuk herri garatu batzuek baino heriotze-tasa txikiagoa dute. Baina konparaketa harrigarri hau guztiz engainagarria da. 3. munduan gazte asko (%50) eta zahar gutxi baitaude eta Europan, alderantziz: gazte gutxi eta pertsona heldu gehiago”.

Y. Lacoste

♦ Noiz gertatzen da heriotza-tasaren beherakada herri azpigaratuetan? Zergatik gertatu ote da fenomeno hau?

♦ Zergatik ez da heriotza-tasaren beherakada bizi-maila igotzearen ondorio herri azpigaratuetan?

II. HERIOTZEN BILAKAERA HERRI AURRERATUETAN

Testu
iruzkina

HERIOTZAK ERREJIMEN ZAHARREAN.

“Nekazari eta Industri Iraultza aurretik, baserriko bilakaera demografikoa estuki lotzen zaie baldintza ekonomikoei eta gari-prezioaren mugimenduari. Salneurrien gorakadak krisia eta hildakoen gehitzea dakar”.

MARSELLAKO IZURRITEA 1.720 AN

“Hiriaren itxura negargarria da; basamortua dirudi; dena dago itxita: Biltegi eta dendak, etxe eta elizak; enparantzetan ez da inor ageri eta kaleetan hiru edo lau pobre aiezka, besterik ez; kaia abandonaturik dago.

Orain arte, aberatsa zen Marsella harro hark, gaur Jerusalem desolatua edo errautsia dirudi.”

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

II.13. Saioa

HILDAKOEN KOPURUAREN BEHERAKADA: DEMOGRAFI IRAULTZA.

“Industri Iraultzak irudia aldatzen du. Zientzi ezaguera berriekin, garraiobide, medikuntza eta osasunaren aurrerapenekin gizonak gosea eta izurriak menperatu ahal izan ditu. Industri Iraultzak heriotze-tasaren gutxitzea ekarri zuen. Gutxitze hau hildako haurren kopuruaren murriztapenean oinarritzen da.”

- ◆ Aipa itzazu Aintzinako Errejimenari dagozkion heriotzen ezaugarriak
- ◆ European XIX. mendean, zein faktoreren eraginez gertatu da hildakoen kopuruaren beherakada?

III. JAIOTZAK HERRI AZPIGARATUETAN

“Faktore ekonomikoek ere esplikatzeko dute jaiotze-tasa handia. Lehen European gertatzen zen bezalaxe, herri azpiagaratuetan haurrak txiki txikitatik egiten du lan. Irabaziak mantentzeko lurgintza operazioak ugaltu egin behar direnean haurren laguntza estimagarria izaten da. Langabezia oso zabaldua dagoenez, haurren lana debekatzen duten legeak bete ezinak izaten dira. Ugazabak haurrak nahiago ditu, adinekoei gehiago ordaindu behar baitie. Hirietan hurrek betetzen dituzte bigarren mailako lanbide batzuk (goxoki-saltzaile....). Honela, bere burua mantentzeko gai den semea ez da zama bat gurasoentzat. Aitzitik, urte askotan berak lortutako irabaziek laguntza handia ematen diete gurasoei. Horrela, seme-alaba gehiago izanez gero, irabazi gehiago lortzeko aukerak gehitu egiten dira. Hori dela-eta, familiei seme-alaba asko izatea interesatzen zaie”.

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

II.13. Saioa

♦ Zergatik dirau hain altu jaiotza-tasak herri azpigaratuetan?

*Testu
iruzkina*

IV. JAIOTZEN BILAKAERA HERRI GARATUETAN

“Aita, ama eta seme-alabez osaturiko gaurko familietan, seme-alaben kopurua urria da. Baina denak bizi direnez gero, familiaren dimentsioa, semeen kopuruari dagokionez, berdin xamarra da, lehengo familiarekin erkatzen badugu. Nahiz eta lehen ugalkortasun handiagoko garaia izan, hilkortasuna ere handiagoa zen”.

“Jaiotzen beherakadaren beste arrazoi bat, emakumearen askatasunaren aldeko mugimenduek osatzen dute. Emakumea objektu sexual bat bezala ikusten deneko eta gizonaren menpean aurkitzen deneko egoera desagertuz joango da. Azkenik, kontsumoko gizarte honen beste garrantzizko fenomeno bat ere kontuan hartu behar da. Ezkondu askoren mentalitate berriaren barruan, semeak eragozpen handi bat bezala agertzen dira emakumearen askatasuna lortzeko eta gizarte honen barruan parte hartzeko, edo karga astunegiak dira kontsumoko ondasunekin konparatuz. Lehenengo semea atzeratu egiten da eta bigarrena ere bai, konkurrenteak direlako kontsumo objektu batzuen aurrean”.

“Beste metodo edo bidea (jaiotzen prebentziorako) hauxe da: Aurretik aldatuak izan behar dira familien ekonomi eta kultur baldintzak, batez ere behe mailakoak. Kultur mailak ekonomikoak baino garrantzi handiagoa izango du.

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

II.13. Saioa

Emakume batek, bere semeak izan ditzakeen gaitzak ezagutzen dituenean, berehala eta konturatu gabe bere mailan aurkitzen diren ardurak eskaintzen hasiko da; horregatik beldur emango dio beste seme bat izateak, aurrekoa era batean sakrifikatu egin baitu. Hemen ikusten dira haurtzantzazko jakituriaren abantailak. Gurasoak beren semeen balioaz konturatzen dira.

“Konturatze” edo “kontzientzi” hitz hau ez da, beharbada, egokiena; kontuan hartu behar dugu, prozesu hauek gehienetan inkontzienteki egiten direla. Baina giza bizitzaren balioaz ohartzeak lagundu egiten dio mentalitate aldakuntzari”.

- ♦ Noiz gertatzen da jaiotza–tasaren beherakada herri garatuetan, heriotza–tasaren beherakada gertatu aurretik ala ondoren? Zein da horren ondorioa?
- ♦ Zein faktorek dute eragina herri garatuetako jaiotza–tasaren beherakada horretan?

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

II.14. Saioa

ABORTOA

“Dossier”—a burutu ahal izateko, ikasleek honako eginbeharrak bete beharko lituzkete:

- Beharrezkotzat jotzen da, etxean, astean bi aldiz gutxienez, egunkari nahiz aldizkariren bat irakurtzea.
- Institutuko hemeroteka erabili, beste zenbait egunkaritatik ikuspuntu ezberdinetako informazioa jaso ahal izateko.
- “Dossier”—aren eraketa:

*Dossier baten
programazioa*

♦ Gai honi buruzko informazio orokorra jaso eta era ordenatu batean azaldu. Era honetako informazioa azaldu beharko litzateke:

- * Noiz legalizatu zen.
- * Zein baldintzatan egin daitekeen.
- * Urteroko portzentaiak.
- * Atzerrira doazenen portzentaia, e.a.

*Sintesi
iharduera*

Irakurri dituzun prentsa artikulua guztietatik egin ezazu idatzi bat honako planteamendu hauekin:

- ♦ Abortoaren alde azaldu diren argudio guztiak
- ♦ Kontrako jarreraren argudioak.
- ♦ Irizpide pertsonalak: Argudia ezazu zure jarrera pertsonala.

Ikasle bakoitzak egin duen “dossier”—etik artikulua nahiz irudirik interesgarrienak jasoko dira, *klasean hormirudi bat* egiteko. Era guztietako jarrerak azaltzen ahaleginduko ginateke.

Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.15. Saioa


MIGRAZIOAK • Egin ezazu mapa bat adieraziz azken urteotan Donostialdera gerturatu diren etorkinen kopurua, euren jaioterria kontuan hartuz

JAIOTERRIAK: DONOSTIALDEKO ETORKINEK OSATZEN DUTEN POPULAZIOA

	gizonezkoak	emakumezk.	guztira		gizonezkoak	emakumezk.	guztira
A Coruña	2.427	2.543	4.970	Girona	46	66	112
Lugo	550	528	1.078	Errioxa	1.856	2.473	4.329
Ourense	546	599	1.145	Castello	29	47	76
Pontevedra	2.108	1.950	4.058	Valentzia	148	176	324
Asturias	587	769	1.356	Alacant	71	87	158
Kantabria	822	1.018	1.840	Murtzia	147	142	289
Gipuzkoa	102.252	104.794	207.046	Caceres	6.374	6.489	12.863
Bizkaia	2.355	2.097	4.452	Badajoz	2.009	2.072	4.081
Araba	1.024	1.381	2.405	Madril	1.218	1.315	2.533
Leon	1.315	1.382	2.697	Toledo	181	182	363
Zamora	1.297	1.417	2.714	Ciudad Real	269	282	551
Salamanca	4.629	4.897	9.526	Cuenca	166	158	324
Burgos	2.723	3.312	6.035	Guadalajara	147	135	282
Soria	763	728	1.491	Albacete	140	136	276
Segovia	770	663	1.433	Jaen	632	642	1.274
Avila	570	536	1.106	Kordoba	404	408	812
Valladolid	1.885	2.287	4.172	Sevilla	466	444	910
Palentzia	1.843	2.177	4.020	Huelva	167	155	322
Nafarroa	5.873	82.934	14.166	Cadiz	340	369	709
Huesca	221	219	440	Málaga	285	282	567
Zaragoza	690	798	1.488	Granada	497	493	990
Teruel	71	78	149	Almeria	65	58	123
Bartzelona	407	426	833	Balear Uharteak	49	45	94
Tarragona	51	72	123	Las Palmas	51	43	94
Lleida	66	76	142	Tenerife	28	42	76

• Mapa burutu ondoren, saia zaitetz honako galdera hauei erantzuna ematen:

- ♦ Zein probintzitatik etorri dira gehienbat? Zergatik?
- ♦ Zein probintzitatik gutxiago? Zer dela-eta?



Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.16. Saioa

Testu
iruzkina

- Azpimarratu testu bakoitzeko ideia nagusiak:

MIGRAZIOAK

MIGRAZIOAK

“Bilakaera ezberdina kapitalismoaren ezaugarri nagusietariko bat da. Kapitalisten eta herri kapitalisten arteko konpetentziak batzuen nagusigoa eta besteen menpekotasuna eragin du, eta era berean, kapital eta indar produktiboen kontzentrazioa herri garaileetan. Irabazleak baldintzak inposatzen ditu ekonomi arloan: prezioak, inbertsioak, produkzio eta salmenta erak e. a.

Fenomeno hau mundu mailan gertatzen da. Egunetik egunera herri garatu eta azpigaratuen arteko distantzia handituz doa; era berean, herri baten barnean fenomeno bera ikus dezakegu; hau frogatzeko ikusi besterik ez dugu hiri eta landa esparruen arteko ezberdintasunak edota lurralde batzuen eta beste batzuen arteko aldeak.

Kapitalismoaren bilakaera ezberdinak, eskatzen duen lan banaketa dela medio, garapen ezberdineko lurralde eta gune ekonomikoak sorrarazi ditu: Batzuen nagusitasunak beste lurraldeen menpekotasuna dakar. Horrela, gaur egun Europako kapital monopolistaren ahaide pobreak Mediterranearen arroko herriak dira. Berauek dira herri aberatsentzat beharrezkoa den lehengaiaren hornitzaileak. Lehengai hori lanerako esku inmigratua da.

ESPAINIAKO MIGRAZIOAK

“Hogeita hamargarren hamarkadako urteetan espainiar emigrazioaren ohiko korranteak eten egin ziren, arrazoi hauengatik batez ere: lehenengo, itsasoz bestaldeko herriek inposatutako neurri errestriktiboengatik, urte haietako krisialdi ekonomikoa zela-eta; bigarrenik, espainiar Guda Zibilagatik; eta, azkenik, Bigarren Mundu Gerragatik.

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

II.16. Saioa

MIGRAZIOAK

*Testu
iruzkina*

1946. urte arte ez zen berriro lehengo martxara itzuli; urte honetan Espainiako Gobernuaren politika, ateratzeko oztopoak kentzen hasi zen. Urte honetatik aurrera, beraz, emigrazio transozeanikoa, indartsu hasi zen berriro baina, gero berriz ere gutxitu eta gelditu egin zen. Orduan, migrazio korronteak norabidea aldatu zuen Europarantz, mendeko hasierako kopurua handiaraziz.

1960.etik aurrera Europako herrietako lanerako eskuaren beharra eta “Plan de Estabilización” delakoagatik Espainian lanezaren gaitz batera etorri ondoren, emigrazio kontinentala hasi eta areagotu egiten da, eta hau ondorio handiko fenomeno demografiko, ekonomiko, sozial eta politiko bihurtu da; hauxe da 1960–70 hamarkadako ezaugarri nagusia”

Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.16. Saioa

MIGRAZIOAK

Testu
iruzkina

EUSKAL HERRIKO MIGRAZIOAK

“Hogeigarren mendearen hasiera arte, Herbestera joera handia izan dute euskaldunek. Lehen karlistada baino lehentxeago, 1832. urtez geroztik hasi ziren irteerak ugaritzen; 1890. urtean jo zituen mugimendu honek gainak (1.885–90 bitartean Zuberoatik hilerio 50 gazte irteten ziren Ameriketara joateko). Urte hartatik aurrera, irteerak asko gutxitu ziren. 1856. urte inguruan, joerarik handiena Argentinara eta Uruguayrakoa izan zen. 1840. urtez geroztik, Txilerako ere joera handia sortu zen.

XIX. mendearen erdialdera hasi zen, bestalde, Mexikorako joera. A.E.B.etarako bideak, berriz, geroxeago hartu zituzten euskaldunek. Urepel eta Aldudeko artzainak 1872. urtean hasi ziren Kalifornia, Nevada eta Idahora joaten.

XIX. mendean Ipar Euskal Herritik 90.000 bizilagun atzerriratu ziren, gehienak Ameriketara; gaur, ordea, urteko 2000ren bat Pariserantz joaten dira. 1925etik aurrera, industrializazioak, eskulan askoren beharra sortzean, atzerrirako joera hori asko gerarazi zuen, adibidez, Maule inguruan zapatagintzarako lantegiak finkatu zirenean edo Gipuzkoan, Oria eta Urola ibarretako lantegiak zabaldu zirenean.

Sintesi
iharduera

Eta, horrela, nolabait gauzak azpikoz gain ipini zirela esan genezake; izan ere, aurrerantzean beste lurraldeetatik gure herrirako etorrera izan da nagusitu dena.

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

II.16. Saioa

MIGRAZIOAK

Bizkaiko burdin meategiek langile asko behar zuten. 1900. urte inguruan hasi ziren lehen industria berriak kanpotik eskulana ekartzen (Eibar, Soraluze, Hernani,...). Munduko Lehen Gerratean asko ugaritu ziren etorkinak, eta 1955–60tik aurrera neurri gabeko sarrerak jasan behar izan ditu Euskal Herriak. Etorkinen sarrerak, Euskal Herrian, batez ere, 1950–70 urte bitartean gertatu izan dira, gehienbat (1964an). Gaur egun, gure arteko laurdena urte horietan kanpotik etorria edo etorkin horien seme ado alaba dela esan daiteke. 1936ko gerratearen ondorioz, hutsune handiak ageri ziren Euskal Herriko populazioan gazteen eta lanerako adina zutenen artean. Honela, epe motzera, etorkin horiek behar genuen eskulana ekarri ziguten, eta bide batez, eskualde behartsuagoetako langabeziari irtenbide bat eman zioten. Epe luzeagora, etorkin horien beharrezko hazkundeari esker, gaur egun populazio gazteberritua dugu.

- Idatz ezazu testu labur bat, honako puntu hauek adieraziz:
 - ♦ Migrazioen *zergatiak*: Zergatik sentitu izan dira etorkinak beren jatorrizko lurraldeetatik mugitzeko premian?
 - ♦ Migrazioaren *ondorioak*:
 - * ekonomikoak
 - * politikoak
 - * sozialak
 - * kulturalak

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

II.17. Saioa

MIGRAZIOAK “EL TÉ EN EL HARÉN DE ARQUÍMEDES”

*Bideo
emanaldia*

Filme horrek garbi erakusten digu arrazakeriaren arazoa, ildo bezala Parisen Arjeliarren asimilazio-eza hartuz. Oso baliabide didaktiko ona dugu, egun horren kezkarria den arazo honetaz zenbait hausnarketa ernarazteko.



* Filmea ikusi ondoren, laburpena egin beharko lukete, puntu bi hauek kontuan hartuz:

- ♦ Filmearen deskribapena
- ♦ Ondorio eta pentsamendu pertsonalak.

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

II.18. Saioa

POPULAZIOAREN EGITURA: ADIN-PIRAMIDEA

*Azalpen
estrategia*

Esplikatu zein irizpide erabili behar diren adin-piramide bat burutzeko.

Adin-piramide moten diferentziarik nabarmenenak azpimarratu.


*Informazioaren
tratamendua*

Egin itzazu bi adin-piramide: bata Frantziari dagokiona (Herri garatuari); bestea, Aljeriari dagokiona (Herri azpigaratuari).


ADIN - PIRAMIDEAK BURUTZEKO DATUAK

	FRANTZIA(1977)		ALJERIA (1984)	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
0 - 4	440.000	425.000	718.000	690.000
5 - 9	425.000	425.000	570.000	542.000
10 - 14	430.000	410.000	510.000	447.000
15 - 19	430.000	410.000	427.000	383.000
20 - 24	430.000	425.000	353.000	391.000
25 - 29	460.000	425.000	260.000	296.000
30 - 34	275.000	260.000	234.000	272.000
35 - 39	325.000	300.000	200.000	202.000
40 - 44	34.000	325.000	209.000	217.000
45 - 49	325.000	325.000	159.000	134.000
50 - 54	325.000	325.000	166.000	168.000
55 - 59	148.000	150.000	103.000	78.000
60 - 64	225.000	275.000	92.000	87.000
65 - 69	175.000	250.000	54.000	41.000
70 - 74	125.000	200.000	60.000	52.000
75 - 79	75.000	150.000	18.000	17.000
80 - 84	25.000	100.000		
85 - 89	15.000	30.000		

FRANTZIA - 1991



ALGERIA - 1989



*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

II.18. Saioa

POPULAZIOAREN EGITURA: ADIN-PIRAMIDEA

Komenta dezagun orain Frantziako adin-piramidea. Jarraian ipini dugun galdesorta hartuko dugu ardatz gisara, iruzkina egiteko:

- * Gizonezko eta emakumezkoen arteko gailurrean dakusagun disimetria, zergatik sortu ote da? Zer dela-eta iruditzen zaizu daudela emakume zahar gehiago gizonezkoak baino?
- * Helduen artean, bi sartune nabari daudela erreparatuko zenuen. Zein esplikazio eman diezaiekezu?
- * Sartune bakoitzaren ondoren, irtenuneak ditugu. Zergatik ote? Nola deritza fenomeno honi?
- * Piramideko oinarriari begiratzuz gero, aise ohartuko gara goialdearekiko estutu egiten dela. Honek piramideari inbertituriko itxura ematen dio. Zein da honen esplikazioa?
- * Nola definituko zenuke piramide honen forma?

Har dezagun orain eskualde azpigaratu bati dagokion eredu: Aljeriakoa, hain zuzen.

- * Aurreko iruzkinaren ildo berbera jarraituz, ahalegin zaitetz atera zaizun adin-piramide hori komentatzen. (Ez ahaztu bestearekin dituen diferentziak azpimarratzeaz.)

Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.19. Saioa

POPULAZIOAREN EGITURA: ADIN-PIRAMIDEA

Hernaniko
populazioaren
banaketa sexu eta
adinarekin arabera

Behin adin-piramide ereduak ondo landu ondoren, hurbil gaitzen gure herriko errealitate demografikoa aztertzea. Horretarako, har ditzagun 1.962 / 75 / 91. urteetako adin-piramideak eta ahalegin gaitzen Hernaniko bilakaera demografikoa azken urteotan zein izan den “irakurtzen”.

ADIN – PIRAMIDEAK BURUTZEKO DATUAK


Adina	1962				1975				1991			
	Gizonez.	Emakum.	Guztira	%	Gizonez.	Emakum.	Guztira	%	Gizonez.	Emakum.	Guztira	%
0 - 4	718,00	669,00	1.387,00	13,40	959,00	927,00	1.886,00	10,00	340,00	321,00	661,00	3,50
5 - 9	515,00	572,00	1.087,00	10,50	959,00	932,00	1.891,00	10,10	475,00	489,00	964,00	5,10
10 - 14	450,00	454,00	904,00	8,70	963,00	952,00	1.915,00	10,20	778,00	685,00	1.463,00	7,80
15 - 19	407,00	350,00	757,00	7,30	838,00	900,00	1.738,00	9,20	882,00	809,00	1.691,00	9,02
20 - 24	309,00	260,00	569,00	5,50	752,00	751,00	1.503,00	8,00	888,00	893,00	1.781,00	9,50
25 - 29	429,00	460,00	889,00	8,60	741,00	741,00	1.482,00	7,90	912,00	803,00	1.715,00	9,15
30 - 34	470,00	493,00	963,00	9,30	677,00	643,00	1.320,00	7,00	783,00	773,00	1.556,00	8,30
35 - 39	432,00	403,00	835,00	8,10	613,00	580,00	1.193,00	6,30	674,00	634,00	1.308,00	6,98
40 - 44	310,00	315,00	625,00	6,00	664,00	647,00	1.311,00	7,00	646,00	638,00	1.284,00	6,85
45 - 49	263,00	256,00	519,00	5,00	593,00	538,00	1.131,00	6,00	590,00	555,00	1.145,00	6,11
50 - 54	229,00	240,00	469,00	4,50	495,00	505,00	1.000,00	5,30	537,00	507,00	1.044,00	5,57
55 - 59	200,00	249,00	449,00	4,30	360,00	333,00	693,00	3,70	554,00	601,00	1.155,00	6,16
60 - 64	163,00	174,00	337,00	3,30	270,00	280,00	550,00	2,90	449,00	499,00	948,00	5,06
65 - 69	106,00	141,00	247,00	2,40	207,00	254,00	461,00	2,40	403,00	448,00	851,00	4,50
70 - 74	52,00	98,00	150,00	1,40	146,00	204,00	350,00	1,90	221,00	295,00	516,00	2,75
75 - ...	72,00	102,00	174,00	1,60	126,00	213,00	339,00	1,80	161,00	227,00	388,00	2,07
80 - 84									84,00	177,00	261,00	1,39
	5.125,00	5.236,00	10.361,00	99,90	9.363,00	9.400,00	18.763,00	99,70	9.377,00	9.354,00	18.731,00	99,81

• Iruzkina egiteko puntu hauek hartuko ditugu aztergai:


- ♦ Inmigrazioaren papera
- ♦ Gerrate Zibilaren ondorioak
- ♦ Malthusianismoaren eragina (jaiotza-kontrola)
- ♦ Bizi-itxaropenaren luzapena (Berdina al da gizonezko eta emakumezkoen artean?)
- ♦ Piramide-formen bilakaera: Konpara itzazu forma hauek aztertu ditugun ereduekin: Zeinekin dute antz gehiago, Frantzia ala Aljeriakoarekin?

• “Irakurketa” egin ondoren eta Hernaniko demografiaren joera ikusiz, idatz ezazu laburpen bat zure ustetan eta etorkizunari begira, Hernanik dituen arazo demografikorik larrienak zein diren azalduz, eta hauen ondorioak aztertuz.


HERNANIKO ADIN-PIRAMIDEA 1962. URTEKOA



HERNANIKO ADIN-PIRAMIDEA 1975. URTEKOA



HERNANIKO ADIN-PIRAMIDEA 1991. URTEKOA



Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.20. Saioa

POPULAZIOAREN EGITURA: ADIN-PIRAMIDEA

Hernaniko
auzoetako
populazioaren
banaketa 1980


Baina aipaturiko fenomeno horiek guztiak, era berean gertatzen al dira Hernaniko auzo guztietan? Har dezagun beste informazio mota bat, galdera hau argitzeko: *hernaniko adin-sailkapena auzoka adierazia.*

* Erabili honako datu hauek, *barren diagrama horizontala* burutzeko.

HERNANIKO ADIN PORTZENTAIA AUZOKA (1.980)			
AUZOKA	0 - 14	15 - 65	65 -
Erdialdea	27,10	64,70	7,90
La Florida	30,40	64,20	4,90
Karabel	39,30	56,50	4,20
Puerto	28,60	62,30	8,50
Elizatxo	32,50	61,60	5,70
Lizeaga	33,50	61,90	4,30
Txantxilla	5,50	31,40	55,50
Kalerak	22,90	66,30	10,40
"Villas"	31,30	63,30	5,40
Antziola	33,30	63,20	3,50
Zikuñaga	33,50	63,30	3,00
Akarregi-Martindegi	32,50	59,50	7,80
Epele	26,70	66,00	7,30
Ereñozu	26,20	65,80	8,00
Jauregi-Sta. Barbara	33,30	61,30	5,10
	%29,25	%60,75	%10,00

- Zaharkitzearen prozedura, berdin gertatu al da auzo guztietan?
- Zein auzo iruditzen zaizkizu zaharrenak? Zergatik?
- Eta gazteenak?
- Zer ikusi dauka gazte gehiago egoteak inmigrazioarekin? Argudiatu erantzuna.

HERNANIKO ADIN PORTZENTAIA AUZOKA (1980)



Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

II.21. Saioa

POPULAZIOAREN EGITURA: ADIN-PIRAMIDEA

Azalpen
estrategia




* Bila ezazu libururen batean *populazio aktiboaren* esanahia eta gaur egungo adibide desberdinak ipini. Aukeratzen dituzun adibideen artean, batzuk izan bitez herri garatuenak eta beste batzuk, berriz, azpigaratuenak.

Informazioaren
tratamendua

* Sektore diagrama bitartez adierazi honako datu hauek:

	1. Sektorea	2. Sektorea	3. Sektorea
A.E.B.	% 3,0	%29,0	%68,0
INDIA	%66,0	%12,0	%22,0
JAPONIA	%13,0	%35,0	%52,0
ESPAINIA	%18,2	%43,8	%38,0

Diagrama burutu ondoren, ahalegin zaitetz portzentaia horien zergatiak aurkitzen.



*Azalpenerako
prozedurak*

II.22. Saioa

FAKTOREEN IDENTIFIKAZIOA ETA ANALISIA

*Analisi
iharduera*

* Idatz itzazu ondoko kuadro honetan, herri garatu nahiz azpigaratuei dagozkien ezaugarri demografikoak.

HERRI GARATUAK	EZAUGARRIAK	HERRI AZPIGARATUAK
	Adina	
	Adin-piramidearen forma	
	Populazio Aktiboa	
	Sekt. Ekonomiko nagusienak	
	Heriotza-tasa	
	Jaiotza-tasa	
	Berezko hazkundera	
	Migrazio-mota	
	Gaztetasuna	
	Bizi-maila	
	Bizi-itxaropena	

*Sintesi
iharduera*

* Egin ezazu idatzi bat, seinalatuz zein diren herri azpigaratuen *hazkunde azkar* horren arrazoiak eta zein herri garatuen *zaharkitzearenak*.

* Ahalegin zaitez arazo bakoitzaren irtenbide posibleak era labur, ordenatu eta sintetiko batean jartzen.

*Azalpenerako
prozedurak*

II.23. Saioa

GATAZKA BATI BURUZKO AZTERKETA: HERNANIKO INMIGRAZIOA AZTERGAI

*Arazoaren
planteamendua*

Jakina da Hernani etorkin askoko herria dela, jasan zuen industrializazioa dela-eta. Honen adierazpen bezala, Institutuan bertan era guztietako ikasle motak ditugu: bai jatorriz gurasoak hernaniarrak dituztenak, bai etorkinen seme-alabak direnak.

Gai honi buruzko analisisia jorratzeko, jarraian datozen puntuok hartuko ditugu ildotzat:

- * Herri honetako biztanleen artean norainoko inmigratio-maila dagoen aztertzea.
- * Ea arrazismo-kutsurik azaltzen den nonbait.
- * Eta azkenik, ea denon artean definitzerik ba ote dugun zer den euskaldun izatea gaur egungo garai honetan.

Helburu hau betetzeko, bi eginkizun mota desberdin egingo ditugu:

- * Mahainguru bat klase barruan.
- * Inkesta bat prestatu Institutu osoari luzatzeko (klasetik klasera pasatuz.)

*Mahai-
ingurua*

Lau edo bost kidez osaturiko talde bakoitzari, honako puntu hauek emango genizkieke aztertzeko:

- Emigrazioaren arrazoiak: Zer dela-eta, utzi behar izan zituzten jatorrizko lurak eta beren ohiko iharduera ekonomikoa hona etortzeko? (Egokia litzateke inmigrante langileren bat klasera ekartzea, bere esperientzia azal lezan)
- Inmigratioaren ondorioak:
 - ◆ Ekonomikoak: Inmigranteen etorrera onuragarritzat jotzen al duzu Hernaniko ekonomiarentzat?
 - ◆ Kulturalak: Euskara, esate baterako, etorkinik gabe zabalduago egongo litzatekeela iruditzen al zaizu?

*Azalpenerako
prozedurak***II.23. Saioa**

- Inmigrante eta jatorrizko populazioaren arteko asimilazio maila nahikoa dela iruditzen al zaizu?
- Zer da euskaldun izatea gaur egun? Ahalegin zaitez izan beharko lituzkeen bereizgarriak zehazten.

Erantzunak prestatu ondoren, talde txiki bakoitzak mahai-ingurua antolatzeari ekingo dio:

- Moderatzaile bat aukeratuko da
- Talde bakoitzeko bozeramalea taldeak dioena irakurtzeko prest agertuko da.
- Gainontzeko ikasle guztiek parte hartuko lukete, beti era ordenatu batean (Eskua altxatuz hitz egin nahi baldin bada, txanda eskatuz banan-banan hitzeginez, besteen irizpideak errespetatuz, e.a.)

*Azalpenerako
prozedurak*

II.24. Saioa

GATAZKA BATI BURUZKO AZTERKETA: HERNANIKO IMMIGRAZIOA AZTERGAI

*Inkesta baten
prestakuntza*

Hona hemen proposamen bat Institutuko klase guztiei helarazteko.

(Ildo honi jarraituz egin daiteke; hemen jarri dugun hau, egiteko era bat besterik ez da.)

- 1.- Zure gurasoen jaioterria:
 - A.- Hernani
 - B.- Euskal Herriko beste herriren bat
 - C.- Euskal Herrira kanpotik etorriak
- 2.- Immigrazioaren ondorio ekonomikoak:
 - A.- Onuragarriak
 - B.- Kaltegarriak
 - C.- Eragin gabekoak
- 3.- Immigrazioaren ondorio kulturalak (Euskara batik-bat)
 - A.- Onak
 - B.- Txarrak
 - C.- Eragin gabekoak
- 4.- Krisi ekonomikoaren aurrean, ondo al deritzazu immigranteek beren jaioterrietara alde egin behar izateari, jatorriz hemengoak direnei lana uzteko?
 - A.- BAI
 - B.- EZ
- 5.- Euskal Herrian jaioa izatea, nahiko ezaugarri iruditzen al zaizu euskaldun izateko?
 - A.- BAI
 - B.- EZ
- 6.- Eman itzazu jarritako erantzunen zergatiak.

*Komunikazioa***II.25. Saioa***Artikulu
baten
idazketa
aldizkarirako*

* Eginiko grafika eta mapa guztiak, klaseko kortxoetan jarriko lirateke.

* Honez gain, ikasleek demografiari buruz irakurri ahal izan dituzten era guztietako artikulu nahiz irudiak jarriko lirateke ikusgai.

* Argitzera emango genituzke eginiko inkestaren ondorioak, behin jaso eta aztertu ondoren, inmigrazio eta asimilazio mailari buruz Institutuko ikasleen artean gehienek duten iritzia zein den ikusi ahal izateko.

* Institutuko *aldizkarirako*, klase bakoitzak artikulu bakar bat atera beharko luke, alde eta kontra ateratzen diren jarrerak argudioen bitartez azalduz.

II. Jarrerak

Ezaguerarekiko balio eta jarrerak

- Gure garaiko joera demografiko nagusiak eta arazoak ezagutu, gai honi buruz jakinmina eta interesa sorraraziz.
- Emaizten edo ikertzailearen ekarri pertsonalaren erlatibotasuna eta behinbehinekotasuna kontutan hartu, ezagupen zientifikoa eraikitzen den bide bat dela, inola ere ez guztiz eta behinbetirako bukatuta dagoen zerbait garbi utziz.
- Lan zientifikoari dagozkion estrategiak erabiltzen ohitu arazoak konpontzeko, honako puntu hauek baloratu:
 - ♦ Hipotesiak bururatu alde aurretik, abiapuntu gisa.
 - ♦ Esperientziak burutu.
 - ♦ Ondorioak atera eta hasierako hipotesiekin kontrastatu.
- Ordena, txukuntasuna eta logika eraikitzaile garbi baten balorazioa.

Tolerantzia, enpatia eta elkartasunezko balio eta jarrerak

- Adina, sexua, lana, jaioterria edo bizitokia eta gizakiaren beste bereizgarrien ondorio diren desberdintasunak—direla, sortzen diren diskriminazioak gaitzestea.
- Errealitatearen atzipenean, gizabanakoen ikuspuntu desberdinen errespetoa eta balorazioa.
- Lanaren balioa azpimarratu:
 - ♦ *Indibiduala*: Autoestima eta norberak egin duen lanaren balorapena bultzatuz.
 - ♦ *Talde txikiak*: Denon arteko aportazioekin sintesi baturakor berri bat ernarazteko.
 - ♦ *Klase osoa*: Gehien baloratuko dena hemen ikasleen *joko demokratikoa* izango da, alegia, elkarrenganako errespetoa urrezko legetzat hartuta, banan-banan hitzegitea, besteen ideiak baloratzeko, e.a.

II. Jarrerak

- Etorkizuneko gizarteez jabetzea eta haienganako elkartasuna erakustea; horrela, baliabide naturalen orekarik gabeko ustiapena kontrolpean jartzeko dugun beharraz konturatzea.
- Lurreko herrien artean dagoen baliobide-banaketa desberdina gaitzestea eta baliabide nahiz elikagai eskasia dutenenganako elkartasuna.

Partaidetza balio eta jarrerak

- Espazioaren banaketa desberdinak kaltetutako gizarteko sektore hiritar eta landatarrenganako elkartasun aktiboa.
- Egon daitezkeen diskriminazio mota guztien aurkako jarrera aktiboa sustatu.
- Arrazismo-kutsuko adierazpen guztiak gaitzetsarazi.

4.– Unitate didaktikoaren edukiak

III. Atala

**“Hirigintza – bilakaeraz zenbait kontzeptu, prozedura eta jarrera”
Hernanik gaur egun aurkezten digun morfologiatik abiatuta**

4.– Unitate didaktikoaren edukiak

III. Atala

“Hirigintza – bilakaeraz zenbait kontzeptu, prozedura eta jarrerak” Hernanik gaur egun aurkeztzen digun morfologiatik abiatuta

Kontzeptuak	101
1. Zenbait estilo arkitektonikoren ezaugarriak	
2. Hirigintza–bilakaera	
Prozedurak	
* Informazioaren bilaketa eta tratamendua:	102
• 1. Saioa: Protogotikoa: Agustina Seroren komentua	
• 2. Saioa: Erdi Aroko Dorretxeak: Portalondoko iruzkina	
• 3. Saioa: Erdi Aroko erdigune historikoa: Harresietako atea	
• 4. Saioa: Erdi Aroko etxe herrikoiaren tipologia: Urumea kaleko etxe baten iruzkina	
• 5. Saioa: Euskal Gotikoa: S. Juan Bataiatzailearen eliza	
• 6. Saioa: Barroko estiloko arkitektura zibila: Aierdi jauregiaren iruzkina	
• 7. Saioa: Industrializazioko arkitektura: Plaza Berriko arkitekturaren azterketa	
• 8. Saioa: Zer da Zabalgune bat?. Adibideak: Bartzelona, Donostia, Hernani	
• 9. Saioa: Hiri–jardina: “Villas” auzoaren iruzkina	
• 10. Saioa: Proletarizaturiko hiri–jardina: “Caleras” auzoaren azterketa	
* Azalpenerako prozedurak	130
• 11. Saioa: Datuen analisisa	
• 12. Saioa: Datuen analisisa: Hormirudia, inkesta	
* Komunikazioa	137
• 13. Saioa: Ondorioak: Herriko aldizkarirako idatziak	
Jarrerak	138
1.– Ezaguerarekiko balio eta jarrerak	
2.– Tolerantzia, enpatia eta elkartasunezko jarrerak	
3.– Partaidetza–balio eta jarrerak	

Edukiak

III. Kontzeptuak

Atal honetan bigarren eta hamabigarren eduki-multzoei dagozkien zenbait kontzeptu lantzen ahalegindu gara.

Zenbait estilo arkitektonikoren ezaugarriak ♦ Beharrezkotzat jo dugu jarraian aipatzen diren estilo arkitektonikoak bereiztu ahal izateko, behar diren ezaugarrien ezaupena:

- Erromanikoa
- Gotikoa
- Euskal-Gotikoa
- Barrokoa
- Modernismoa
- Historizismoa, Revival edo Neo-estiloak
- Arrazionalismoa

Hirigintza-bilakaerari buruzko zenbait ezaupen ♦ Halaber, hirigintzaren bilakaera zein izan den ulertu ahal izateko, ezinbestekoa litzateke egungo hirigintzan ondorioak utzi dituzten hiri-tipologien ezaugarriak ezagutzea. Honako hauek iruditzen zaizkigu garrantzitsuenak:

- Erdi Aroko hiri-eredua.
- Barroko garaiko hirigintza.
- Lehen industrializazioari dagokion aldia: Zabalguneak.

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

III.1. Saioa

AGUSTINA SEROREN KOMENTUA

Gizarte-Zientzietako Laboratorioan, kontsulta ezazu gai honi dagokion bibliografia Erromaniko eta Gotikoaz. Erromanikorako har itzazu eredu bezala Leireko monastegia edota Santiagoko katedrala; Gotikorako berriz, Iruinakoa eta Burgos-koa dituzu lagungarri.

Urrengo orrialdean dankazun ataldea aztertuz eman iezaiozu erantzuna galdera hauei:

- ♦ Marraz ezazu portada edo atalde protogotiko hau.
- ♦ Zein arku mota ageri da? Denek forma berdina al dute?.
- ♦ Zein estilo arkitektonikori dagozkio?
- ♦ Zergatik ote daude arku-mota bi hauek portada edo atalde berean?
- ♦ Aurkezten dizkigun bereizgarri arkitektonikoen arabera, noiz eraikia izan daitekeela iruditzen zaizu?
- ♦ Eliza honek Erdi Aroan zein funtzio betetzen zituela uste duzu?.Argudiatu erantzuna.

Zuzeneko
behaketa



Aurrean duzun eraikin hau aztertu ahal izateko ohartu zaitez honako ezaugarri hauetatik:

Lehen arkiboltak erdi-puntuko forma duela eta berriz gainontzekoek zorrotzak direla.

Zer ondorioztatzen duzu arku mota bi hauek erabiltzeaz?

Zein garaikoa izango ote da eraikin hau?

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

III.2. Saioa

PORLANONDO DORRETXEA

*Zuzeneko
behaketa*

Urrengo orrialdean duzun dorretxea aztertuz eman iezaiozu erantzuna honako galdera hauei:

- ♦ Marraz itzazu azaltzen diren arkuak eta Agustina Seroren komentuan azaltzen zirenekin erkatu. Zer ondorioztatzen duzu?
- ♦ Garaikideak direla deritzazu? Zergatik?
- ♦ Azter dezagun orain izenaren etimologia: PORTALONDO. Zergatik ote? Erlaziona ezazu izena Hernaniko oinplanoan kokatzen den gunearekin. Zergatik ote dago Agustina Seroren komentua baino sestra altuago batean eraikia? Atera itzazue ondorioak.
- ♦ Zer ziren dorretxeak? Zertarako izan ziren eraikiak?
- ♦ Eraikia izan zen garaiaz jabetzeko, atera ezazue informazioa honako bi gai hauek: “Ahaide Nagusien arteko gatazkak: Oinaztarrak eta Ganboatarrak” eta “Gaztelako Enrike IV.a eta jauntxoak: dorretxeen itxuraldaketa”.
- ♦ Azkenik, erlaziona ezazue atera duzuen informazioa, gaur egun Portalondok aurkezten digun itxurarekin, alegia, defentsarako horren gotortua ez izanaren zergatia zein den asmatzen ahalegindu.

*Zuzeneko
behaketa*




*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

III.3. Saioa

KARKABAKO Urrango orrialdean daukazu atea aztertuz eman iezaiozu
ATEA erantzuna galdera hauei:
(KANTOI
BATEKO
SARRERA)

- ♦ Zer ulertzen duzue “kantoi” hitzaz? Erlaziona ezazue termino hau Erdi Aroko hiribilduen oinplanorik erabilienetariko batekin. (Ikusi Gasteizko oinplanoa eta ahalegindu zaitezte Hernanikoarekin erkatzen. Zein berdintasun antzematen dituzue? Ezberdintasunak ba al daude?)
- ♦ Harresitua ote zegoen Hernaniko erdigunea? Nola jakin genezake? Hala izan balitz, zergatik horrela? (Kontsulta ezazue Erdi Aroko hiribilduen sorrera)
- ♦ Kantoi bakarra ote zen? Gehiago egon zitezkeela uste baldin baduzue, seinalatu oinplanoan non kokatuak. (“pista” txiki bat emango dizuegu: Zergatik “Portal-ondo”? Illdo honi jarraituz gero, akaso antzemango duzue nondik nora jo.)

Zuzeneko
behaketa



Hemen duzue Hernaniko Erdi Aroko erdigunera sartzeko ate bat.

Argazkiari begiratu saia zaitezte erantzuna ematen honako galdera hauei:

- 1) Zenbat honelako ate izango ote zituen Hernaniko erdiguneak? Non kokatuak?
- 2) Arkuaren forma kontuan hartuz, zein garaikoa izan daitekeela deritzazue?

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

III.4. Saioa

ERDI AROKO TIPOLOGIA GORDETZEN DUEN ETXE HERRIKOIA

Urrengo orrialdean daukazu etxe herrikoia argazkia aztertuz eman iezaiozu erantzuna galdera hauei:

- ♦ Marraz ezazue etxe honen aurrekaldea.
- ♦ Zein dira erakusten dituen materialak?
- ♦ Zergatik ote ziren horren estuak eta luzeak etxe herrikoia hauek?. Begira ezazue Hernaniko erdigunearen oinplanoa eta seinalatu margo batez antzeko oinplanoa duten eraikinak.
- ♦ Zer dira "kontrasuak"? (kontsultatu hiztegia). Zein materialez daude eginak? Zergatik? Zein ote zen beren funtzioa?.
- ♦ Ohartu zaitezte behekaldeko ate eta leihoaz; arretaz begiratzen baldin baduzue konturatuko zarete ugari direla antzeko baoguneak dituzten etxeek. Ez al zaizue iruditzen gremioekin izan dezaketela zerikusia? (Ez badakizu, begiratu zer den gremioa eta bilatu Gasteizko kaleen izenak).
- ♦ Zein izan zitezkeen Hernaniko iharduera ekonomiko nagusiak industrializazio aurretik, aztertu ditugun zenbait etxe herrikoiren behekaldeen egitura kontuan hartuz?

Zuzeneko
behaketa



*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

III.5. Saioa

**JOAN
BATAIATZAILE
DEUNAREN
ELIZA.
EUSKAL
GOTIKOA**

- ♦ 1.— Elizaren barnekaldearen iruzkina:
 - 1.—Materiala
 - 2.—Oinplanoa
 - 3.—Euskarriak:
 - harmora edo murrua
 - zutabe / pilare / pilastra
 - kontrahorma
 - 4.—Estalkia:ganga—mota
 - 5.—Estiloa;kronologia;ingurune historikoa
- ♦ 2.—Aurrekaldea:
 - 1.—Eraketa orokorra
 - 2.—Moldurak
 - 3.—Eskailerak
 - 4.—Estiloa;kronologia;ingurune historikoa
- ♦ 3.— Dorrea:
 - 1.—Ezaugarriak
 - 2.—Estiloa; kronologia.

*Zuzeneko
behaketa*



*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

III.6. Saioa

AIERDI JAUREGIA. BARROKOA

*Zuzeneko
behaketa*

♦ 1.– Materiala: Eraikinak hiru kolore nagusi ditu: Zein dira? Zein materiali dagozkie? Zein da material bakoitzak betetzen duen funtzioa?

♦ 2.– Oinplanoa: Beha ezazue eraikin honen oinplanoa: Zein forma du? Konpara ezazue aztertu berri dugun Erdi Aroko etxe–tipoarekin. Zein dira gehien nabarmentzen diren diferentziak?

♦ 3.– Aurrekaldea: Zenbat fatxada ditu? Norantz zabaltzen da fatxada nagusia? Zergatik ote?. Fatxada nagusiko leiho eta balkoietan bi dira azpimarragarriak diren elementuak:

- Harrizko moldurak: "Orejera" direlakoak
- Burdin landuzko balkoiak

* Bilatu hiztegian, bi hitz hauen esanahia: "Orejera" eta "Burdin forjatua edo landua".

♦ 4.– Erlaiza: Ohar zaitezte beste kale honetako jauregietan ere gailentzen diren erlaizez. Zein materialez daude eginak? Nola daude apainduak? Deskriba itzazue.

♦ 5.– Biztanleria: Erdi Aroko etxe–tipo hartan, harakin bat bizi ahal izan bazen, Aierdi etxe honetan, ondorengo ofiziodun hauek, zein bizi zitekeela deritzazue? Zergatik?

- Zapatar bat
- Okin bat
- Olagizon bat
- Rocaverdeko markesa .

♦ 7.– Ezaugarri hauek – zuen erantzunak – definitzen badute jauregi barroko tipiko bat, saia zaitezte bilatzen beste horrelako sei, Kale Nagusian zehar. Behin aurkitu ondoren, seinala itzazue mapan.

♦ 8.– Zergatik ote daude jauregi barroko guztiak Kale Nagusian bilduta? Urumea kalean, berriz, zergatik ez dugu bat bera ere aurkitzen?

Zuzeneko
behaketa

♦ 9.— Jauregi barroko gehienak Plaza Berri eta Zincoenea plazaren artean daudenez, antzeman daiteke bertan egon zitekeela kokatua barroko garaiko esparrua. XVIII. mendean ezagutu genuen aurrerapen ekonomiko eta indianoen etorrerarekin erlazionatua, hain zuzen ere.

— Zein ziren indianoak?. Bilatu informazioa gai honetaz.

— Begiratu zer zen “Caracasko Gipuzkoar Erret Konpainia”.

— Zergatik ote zeuden jauregi gehienak gune berean kokatuta? Aurrera itzazue hipotesi batzuk.



*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

III.7. Saioa

PLAZA BERRI: LEHEN INDUSTRIA- LIZAZIOKO ERAIKINEN AZTERKETA

*Zuzeneko
behaketa*

♦ 1.— Hernaniko erdigunean bi plaza ditugu. Zergatik deitzen diogu honi “Berri”? Noiz izan litekeela eraikia iruditzen zaizue?

Herriko amonak eta aitonak ondo baino hobeto gogoratzen dira Urbietan kalean barrena Donostiatik zetorren trenaz. (Hor dugu oraingo lekuko bezala geltoki itxura duen neo-euskaldun estiloko eraikina, Urola bailaran ikus daitezkeenak gogora dakarzkiguna). Ekin iezaiozue itaunketa egiteari, aiton—amonen oroitzapenetatik ahalik eta berri gehien jaso asmoz.

♦ 2.— Ikus dezagun orain zein funtzio bete izan dituen plaza honen Historian zehar:

a) Industrializazio aurretik, ganadu—merkatua izan zela frogatua dago, zenbait argazki zaharretan ikus daitezkeen bezala.

b) Lehen Industrializazioarekin batera (XIX. mende bukaeratik, XX. mendeko /lehen herena bitartean) trenaren geltzerakoan, bidaiariz eta merkantziek betetzen joan zen. Zein funtzio betekoa zuela garai horretan deritzazue?.

d) Eta gaur egun, Plazan dauden zerbitzu nagusiak zein diren kontuan hartuz ?

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

III.7. Saioa

*Zuzeneko
behaketa*

- ◆ 3.— Eraikin modernistaren iruzkina.
 - * Zein materialez dago egina?
 - * Deskriba itzazue bere apaindurak.
 - * Zergatik ote du kupula eraikinaren erpinean?
 - * Eraikin ostean, jardintxo bat dugu. Deskriba itzazue bertan ikusten diren landare-motak, Natur Zientzietako irakaslearen laguntzaz. Ba al dute zerikusirik landare exotiko horiek indianoekin?.
 - * Zein klase sozialentzat izan ote zen burutua etxe hau?.
 - Zergatik eraiki nahi izan ote zuten etxea Plaza Berrin?
 - * Zein garaitan eraiki ote zuten?. Bila ezazue informazioa Bartzelonako modernismoaz eta Gaudiz.
- ◆ 4.— Eraikin arrazionalistaren iruzkina.
 - * Zein materialez dago egina?
 - * Apaindurarik ba al du?
 - * Egin ezazue bere formaren marrazkia eta deskribapena.
 - * Bere “idi-begiek” itsasontzi baten irudia dakarkigute burura. Zer harreman egon daiteke estilo arrazionalista eta itsasontzi baten funtzionaltasunaren artean?
 - * Zein garaitan egin ote zuten? Bila ezazue informazioa Donostiako “Nautiko”az eta Aizpuruaz.

*Zuzeneko
behaketa*



Zuzeneko
behaketa



*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

III.8. Saioa

ZER DA ZABALGUNE BAT? BARTZELONA ETA DONOSTIAKO OINPLANOEN AZTERKETA. HERNANIK BA AL DU ZABALGUNERIK?

*Azalpen
estrategia*

Lehenik eta behin, zabalgune bat zer den azaldu beharko litzateke, ondoren Hernanik ba duen ala ez eta, edukitzekotan, nolakoa den, aztertu ahal izateko.

Eredu gisa Bartzelonak eta Donostiak garatu zituzten zabalguneak hartuko genituzke aztergai, erakusten dizkiguten bereizgarriez jabetzeko.

BARTZELONAKO OINPLANOAREN AZTERKETA

1.— Erdigune historikoa: Auzo gotikoa

2.— Ildefonso Cerdáren proiektuaren funtsezko ildoak:

- * Oinplano ortogonal, hipodamikoa.

- * Trafikoaren arabera taxuturiko oinplanoa, hiribide diagonalak izanik oinplano berriaren ardatzak. Hala, Diagonala; Meridiana hiribidea; eta Paraleloa. Hirurak Las Glorias izeneko plazan elkartzen dira.

- * Kale hierarkizatuak (Hausmann baroiak Parisen egin zituen antzekoak.)

- Nagusienak: 50 m.

- 2. mailakoak: 30m.

- 3. mailakoak: 20m.

- * Etxaldi bakoitzaren taxuketa:

- Bolumen karratua

- Jardin bat barnekaldean, Ebenzerd Howard— en “hiri-jardina” zabalgune bati egokituz.

- Lau fatxadadun etxaldia, barnekaldeak argitasunez blaitzeko moduan.

- Oketsak edo alakak (chaflán) ertzetan; sorturiko gurutzbideak oktogono formako plazatxo irekiak direlarik.

- * Burgesiari zuzenduriko zabalgunea

- * Azkenik, espekulazioa zela medio, ezin izan zuen burutu proiektua asmatu bezala: jardin irekiak izan behar zuketenean, barne patio bihurtu behar izan zuten.



Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

III.8. Saioa

Azalpen
estrategia


DONOSTIAKO OINPLANOAREN IRUZKINA

- 1.— Parte Zahar neoklasikoa: Ugartemendia
- 2.— Cortazar-en hirigintza-plangintza:
 - * Donostiako burges merkatarientzat.
 - * Harresien desagerketa: 1.864
 - * Oinplano-mota:
 - Ortogonal
 - Oketsik gabea
 - Etxaldi itxiak
- 3.— Esparru sozialen banaketa hierarkizatua:

Zabalguneak ondo erakusten digu klase sozial ezberdinen kokaera. Horrela, Concha badiatik edota Boulervardetik zenbat eta gertuago egon, orduan eta handiagoa izango da orubearen balioa. Ondorioz, esparruak hierarkizatuta azaltzen zaizkigu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

 - Concha badiaren frontea: Erreginaren kortearekin zetozen nobleentzat eginiko “Villa ajardinatu” antzekoak.
 - Boulevard pasealekua: Erdigune historikoaren ukipen-gune bezala bururatua; zuhaizti batez elkarlotu dira erdigune historikoa eta zabalgune berria.
 - S.Martin eta Amara zaharra auzoak maila sozial bajuagokoentzat.
- 4.— Parte Zaharrarekin dituen loturak:
 - Ardatz erlijiosoa: Sta.Maria basilikatik (Parte Zaharrean) Artzai Ona katedralera.(Zabalgunean funtzio erlijiosoa betetzen duen eraikina).
 - Bretxa: Eguneroko jangaiez hornitzeko, hiri guztirako da erreferentzigune.
 - Ohiko denda gehienak Parte Zaharrean daude kokatuak eta funtzio ekonomiko jakin bat betetzen dute.
- 5.— Hiribideen hierarkizazioa:
 - 1. mailakoa:—Askatasunaren Hiribidea
 - 2. mailakoak:15–20 m.
 - 3. mailakoak: 9–15 m.
 - 4. mailakoak: 9 m.

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*



San Sebastián en 1874



San Sebastián en 1916



San Sebastián en 1927

Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua

III.8. Saioa

Azalpen
estrategia

Eta HERNANI?

Hiribildu txiki bat zenez, ezin pentsa genezake hemen zabalguneratu, trinko bat egon zitekeenik, baina egia da badauzkagula XIX. mende bukaeran eta XX. hasieran burgesiarrentzat eginiko zenbait etxe eta auzo. Hara:

1.— Erdigune historikoaren albo bietara ikus daitezke zenbait “Villa” beren jardinekin.

* Alde batera —Perkaiztegi kalerantz— gaur egun oraindik zutik dirauen neoeuskaldun estiloko landetxea. Honez gain, magalpe guztia dago zuhaitz exotikoz beterik eta honek zera pentsaraztera garamatza: izango zirela “villa” gehiago ere.

* Beste alderantz “Felisa—enea” bota berria, edota Anbulatorio berria jaso duten ingurune hori, dena “Villaz” betea duela gutxi arte.

2.— Auzo bezala, “Villas” aipa daiteke.

* Hiri-jardinaren eta neoeuskaldun estiloaren sintesi bikaina. Hasierako landetxeak “Carrero” lantegira etorri ziren zenbait injineru alemaniarrentzat eginak.

Informazioaren
tratanendua

Har itzazue hiru oinplanook eta kolore ezberdinez seinalatu bakoitzean honako hauek:

- * Erdigune historikoa
- * Zabalgunea
- * Hiribiderik garrantzitsuenak
- * Berdeguneak

*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

III.9. Saioa

“VILLAS” AUZOA: HIRI-JARDINA.

- ♦ –Zertan da horren ezberdina auzo hau beste gainontzekoekiko? Azter ditzagun bere ezaugarriak:
 - Dentsitateari begira: Zenbat etxe daude guztira?
 - Etxe-tipologiari dagokionez: Zein estilotakoak ditugu gehienak?
 - Funtzioari begira: “Hiri-jardina” kontsidera genezake? Zergatik?
 - Zein klase sozialentzat izan zen burutua?
- ♦ AVE MARIA “VILLA” ikusterakoan:
 - Ez al diozue baserri baten antzik hartzen?
 - Zein dira baserri bat gogorarazten dizkizuten elementuak?
 - Baserri baten antza izan arren, guk, berriz, “Villa” deitu diogu. Kontraesan bat al da ala justifikagarria deritzazue? Zergatik?
 - Zer ikusi dauka estilo honen agerpenak, euskal nazionalismoaren sorrerarekin?.
 - Zein klase sozialentzat izan ote zen egina?

*Zuzeneko
behaketa*



*Zuzeneko
behaketa*



*Informazioaren
bilaketa eta
tratamendua*

III.10. Saioa

CALERAS AUZOA: HIRI-JARDIN PROLETARIZATUA

- 1.– Non dago kokatua “Caleras” auzoa”? Kokapena, “Villas” auzoarena bezain ona iruditzen al zaizue? Zergatik?
- 2.– Deskriba itzazue etxe hauen ezaugarriak:
 - Materiala
 - Aurrekaldeak
 - Jardintxoak
 - Bakoitzaren hedadura
- 3.– Zertan dira “Villas” auzoan aurkitu ditugun etxeekiko desberdinak?
- 4.– Zein klase sozialentzat izan ote ziren eginak?

SCHRÖEDER LANTEGIA: LEHEN INDUSTRIALIZAZIOKO ARRAZIONALISMOA

- Marraz ezazue SCHROEDER burdindegiaireen fatxada.
- Seinala itzazue eraikin hau egiteko erabili ziren materialak.
- Zergatik erabili ote zuten hainbeste beira? Zer da horma-gortina? (kontsultatu hiztegiren batean).
- Zergatik erabiltzen zuten estilo arrazionalista lantegiak egiteko, eta ez neoeuskaldun edo modernista?
- Ikusi al duzue Hernanin nonbait beste eraikin arrazionalistarik? Non? Zein funtzioarekin?

*Zuzeneko
behaketa*



*Zuzeneko
behaketa*



*Azalpenerako
prozedurak*

III.11. Saioa

*Datuen
analisiak*

HERNANIKO ERDIGUNEAREN OINPLANOAK HARTUZ:

- ♦ Azpimarratu zein izan zitekeen harresiak barnean biltzen zuen esparrua.
- ♦ Margo itzazue gorritz Erdi Aroko eraikinik esanguratsuenak.
- ♦ Margo itzazue urdinez Barroko garaiko eraikinik seinalagarrienak.
- ♦ Margo itzazue berdez Lehen Industrializazioari dagozkion eraikinik gailenenak.

ESTILO ARKITEKTONIKOEZ:

- ♦ Marraz itzazu ondoren aipatzen diren estilo arkitektoniko hauen bost ezaugarri:
 - Arkitektura erromanikoa
 - Arkitektura gotikoa
 - Arkitektura barrokoa
 - Arkitektura modernista
 - Arkitektura historizista (Revival): Neo-euskalduna
 - Arkitektura arrazionalista

*Azalpenerako
prozedurak*

III.12. Saioa

*Datuen
analisiak*

– Talde txiki –lau edo bost kidez osaturikoak– bakoitzak hormirudi bana prestatuko du ondoren azaltzen diren gai hauetaz:

- ♦ 1.taldea: Hernaniko arrasto arkitektonikoak Erdi Aroan.
- ♦ 2. taldea: Hernani barrokoa
- ♦ 3.taldea: Lehen Industrializazioko adierazpen arkitektonikoak Hernanin.
- ♦ 4.taldea: Bigarren Industrializazioaren (1.960) ondoren sorturiko auzo baten arazoak (La Florida).(Taldea honek inkesta bat prestatu eta burutu beharko luke).
- ♦ 5.taldea: Hirigintzari dagokionez, zein dira Hernanik planteatuta dituen arazorik larrienak? Alkateari nahiz hirigintzaz arduratzen den zinegotziari inkesta bat luzatzeko prestatu.

– Azken bi talde hauek inkestaren estrategia erabiliko dute lana egiteko. Ondoren, bi eredu aurkezten dizkizuegu.

*Azalpenerako
prozedurak*

III.12. Saioa

*Inkesta
baten
prestakuntza*

AUZO BATI BURUZKO INKESTA BATEN PRESTAKUNTZA

- a) Mugatu auzoa mapa batean, duen biztanle kopurua seinalatuz
- b) Auzo honen bilakaera historikoa jaso: zein garaitan sortu zen, eta geroztik jasan dituen eraldaketak edo zabalgunekak – baleude–.
- d) Zein portzentaia betetzen du eraikitako zoluak? eta, zein da zerbitzuek betetzen dutena? (eritegi, ikastetxe...); zein da, azkenik, berdeguneena?
- e) Eraikinen ezaugarriak eta kalitatea:
- Etxe jabetza / alokatuta daudenak
 - Metro karratuen kopurua.
 - Dituen zerbitzuak: hiri-gasa / igogailua / berogailu zentrala...
- f) Adinaren arabera egitura:
- 15 urte bete ez dituzten gazteen kopurua.
 - 15 / 55 urte bitartekoena.
 - 55 baino gehiago dituztenena.

Zer diozue: Zaharturiko auzo baten aurrean gaudela ala, aitzitik, populazio gaztea nagusi dela? Zergatik ote?

g) Berdegunerik ba al dago? Aisiarako nahiko esparru badagoela al deritzazue eraikingune-dentsitatearekiko?

h) Jarraian azaltzen diren zerbitzuak eskaintzen al ditu auzoak? Zein neurritan?

<i>*Egunerokoak</i>	<i>*Egunerokoak ez</i>	<i>*Hondasun</i>
–Janaridendak	<i>direnak</i>	<i>iraunkorrek</i>
–Farmazia	–Jantzidenda	–Elektrodomestikoak
–Lurrindegia	–Notarioak	–Altzariak
–Garbigaidenda	–Zapatadenda	–Etxebizitzarako
–Okindegia	–Poltsadenda	apaindurak
–Liburudenda		

- i) Eta zerbitzu hauei dagokienez, nola dago hornitua?
- Aurrezki kutxa
 - Banketxeak
 - Garraioak
 - Osasun zerbitzua
 - Irakaskuntza

*Azalpenerako
prozedurak*

III.12. Saioa

*Inkesta
baten
prestakuntza*

GALDESORTA HERNANIKO HIRIGINTZA-ARAZOEZ

(Udaleko alkate nahiz hirigintzaz arduratzen den zinegotziari luzatzeko; ikasleek egin beharko luketen lana izan arren, eredu bezala lagungarri izan daitekeela uste dugu.)

1.— Hernaniko hiribildua osatzen duten auzoen sorreraren historia. Berezkoa izan al da beren sorrera ala alde zaurriko plangintza baten ondorio? Isladatu oinplano batean, kolore ezberdinak erabiliz.

2.— Ba al dago gaur egun Hernanin hiri-plangintzaren ordenamendurik? Noiz egin da? Zein dira jarraitzen dituen ildo nagusiak?

3.— Eraikuntza berririk egiteko proiekturik bai?

3.1.— Non kokatzeko joera dute eraikin berriek?

3.2.— Erdigunean kokaturik dauden eraikin historikoak birgaitzeko asmorik bai?

3.3.— Hirigintza-esparru berrietan, aisiarako gunerik hartzen al da kontuan?

3.4.— Kontratatutako espazio horiek errespetatzera behartuta al daude?

3.5.— Etxe-eraikuntzen dentsitateari dagokionez, ba al dago alturaren nahiz etxe arteko distantziaren nolabaiteko kontrolik?

3.6.— Duela urte batzuk baino etxebizitza gutxiago ala gehiago egiten dira gaur egun? Zergatik?

3.7.— Hernaniko etxebizitzaren hedadura, zein metro karraturen artean dabil?

3.8.— Zein da metro karratuko prezioaren aldea, Hernaniko auzo desberdinetako orubeen artean?

3.9.— Etxebizitzaren fatxaden edo aurrekaldeen estetika zaintzen al da? (materialak, koloreak, baoguneak...)

4.— Osasunbide-plangintza

4.1.— Zein dira estolderi sareak sorrarazten dituen arazorik larrienak? Sarri konpondu behar izaten al da? Noiz izan da azken aldiz berritua?

4.2.— Non isurtzen dira Hernaniko ur zikinak? Arazo ekologikoren bat sorrarazten al dute?

*Azalpenerako
prozedurak*

III.12. Saioa

*Inkesta
baten
prestakuntza*

- 5.— Ur edangarriaren hornikuntza
 - 5.1.— Non aurkitzen dira Hernaniko ur-iturburuak? Nahikoak al dira herri guztirako?
 - 5.2.— Hernani, Añarbeko mankomunitatearen barnean al dago?
 - 5.3.— Egokituta al daude ur-gordailuak egungo eskaeretara?
 - 5.4.— Osasungarriak al dira ur-gordailuak? Nork eta noizka kontrolatzen du ur kalitatea?
- 6.— Energi hornikuntza
 - 6.1.— Elektrizitate-indarra
 - Baserritarturiko inguruneak nahiko elektrifikatuak al daude?
 - Asko kostatzen al zaio Udalari argikuntza publikoa mantentzea?
 - 6.2.— Gas-hornikuntza:
 - Heldu al da Hernanira hiri-gasa? Heldu ez bada, noizko?
- 7.— Garraioak
 - 7.1. Trena: Azal ezazu garraiobide honek duen garrantzia, bai Hernaniko ekonomian, bai bidaiarien garraio bezala.
 - 7.2.— Autobusak:
 - Inguruetako auzo guztiak ondo erlazionaturik al daude erdigunearekin?
 - Alboko herriein komunikazioa ona al da?
 - Hernanik Donostiarekin duen harremanetarako, ondo egokituta al dago autobus-garraioa?
- 8.— Berdeguneak
 - 8.1.— Biztanle kopuruari begira, nahikoak al daude?
 - 8.2.— Proiektu berririk ba al dago?
 - 8.3.— Non kokatuko lirake?
- 9.— Ondare historiko-artistikoaren zainketa
 - 9.1.— Eraikin historiko asko al daude hondatuta?
 - 9.2.— Ba al dago premia duten eraikinak birgaitzeko proiekturik?

*Azalpenerako
prozedurak*

III.12. Saioa

*Inkesta
baten
prestakuntza*

- 10.– Zabor–bilketa
 - 10.1.– Udaletxeko langileek ala kontratupeko enpresaren batek egiten du zeregin hau?
 - 10.2.– Udal–hondakindegirik ba al dago? Non dago kokatua? Arazo ekologikorik sorrarazten al du? Su–laberik ba al dago?
 - 10.3.– Kaleak nahiko garbi al daude?
- 11.– Kontrol ekologikoa
 - Udalak ba al du kontrolatzerik ingurugiro ekologikoa? Esate baterako, kea, ibaiaren kutsadura e.a.
- 12.– Aisia Hernanin
 - 12.1.– Kirolak
 - Kirol asko egiten al dute hernaniarrek?
 - Polikiroldegia martxan jarri denetik gehiago egiten al da?
 - Buruaskia al da?
 - 12.2.– Zineak
 - Zergatik desagertu dira zeuden guztiak?
 - 12.3.– Kultur Etxea
 - Zein alor jorratzen ditu?
 - Nork ordaintzen ditu gastuak?
 - Bertako langileak, Udaletxekoak al dira?
 - 12.4.– Gaztediaren planak jaiegunetan: herriak nahiko aukera eskaintzen al die Donostiara joan beharrik gabe?
- 13.– Zaharrak eta Jubilatuak:
 - Zein zerbitzu eskaintzen zaizkie? Nork ordaintzen ditu?
- 14.– Iradokizunak eta komentarioak

*Komunikazioa***III.13. Saioa***Mahai-
ingurua*

– Talde bakoitzak egin duen lanaren berri emango lieke gainontzeko taldeei. Azalpenetarako era guztietako material motak erabil litezke: hormirudiak, argazkiak, mapa kontzeptualak, diapositibak e.a.

*Idatzi baten
idazketa*

– Ondorio gisa, klase guztiaren artean Hernaniko hirigintzaren bilakaerari buruzko deskribapena idatziko litzateke Udaletxean aurkezteko argitaratua izan dadin. (Hau posible izango ez balitz, gutxienez Hernaniko ikastetxe bakoitzari ale bana emango genioke.)

III. Jarrerak

*Ezaguerarekiko
balio eta
jarrerak*

- Hiri-espazio desberdinak ezagutzeko interesa piztea eta beren aniztasuna desberdintasun sozioekonomiko eta kulturalen isladatzat hartzea.
- Iraganetik jasotako elementu artistiko-kulturalak ikertzeko eta baloratzeko joera.
- Lan zientifikoari dagozkion estrategiak erabiltzen ohitu, arazoak konpontzeko; estrategia hauetan, honako puntu hauek baloratu:
 - ♦ Hipotesiak bururatu, asmatu aldeztu aurretik, abiapuntu gisa.
 - ♦ Esperientziak burutu
 - ♦ Ondorioak atera eta hasierako hipotesiekin kontrastatu.
- Ordena, txukuntasuna eta logika eraikitzaile garbi baten balorazioa.

*Tolerantzia, empatia
eta elkartzasuneko
balio eta jarrerak*

- Lan artistikoei begirunea.
- Artearen aurrean, jarrera irekia eta irizpide pertsonal landu bat lortzea.
- Hirietako biziguneen arteko desberdintasunak (zerbitzuetan, ingurunearen kalitatean) eragiten dituzten faktoreak kritikoki kontuan hartzea eta horiek dakartzaten diskriminazio sozialak gaitzestea.
- Errealitatearen atzipenean, gizabanakoen ikuspuntu desberdinen errespetua eta balorazioa.

III. Jarrerak**Partaidetza
balio eta
jarrerak**

- Lanaren balioa azpimarratu:
 - ♦ *Indibiduala*: Autoestima eta norberak egin duen lanaren balorazioa bultzatuz.
 - ♦ *Talde txikiak*: Denon arteko aportazioekin sintesi baturakor berri bat ernarazteko.
 - ♦ *Klase osoa*: Gehien baloratuko dena hemen ikasleen *joko demokratikoa* izango da, alegia, elkarrenganako begirunea urrezko legetzat hartuta, banan-banan hitzegitea, besteen ideiak baloratzea, e.a.
- Iraganeko artearen eta egungo kulturaren ondarearekiko jarrera irekia azaldu eta horiek babestearen eta gozatzearen aldeko ahaleginak burutu.
- Norberaren komunitateko hirigintza-proiektu guztiei adi egon, beti interes kolektiboak inposa daitezen .
- Herriko ondare artistikoa baloratu era aktibo batez, bere hondamena sorraraz dezaketen faktore guztiak kritikatzuz eta gaitzestuz.

5.—EBALUAZIOA

Ikaskuntza–irakaskuntzaren konplexitatea eta aniztasuna kontuan hartzen dituen ikuspuntu berri bat izan beharko genuke ebaluatu ahal izateko. Irakasleek nahiz ikasleek hartu beharko lukete parte etengabeko ebaluaketan bai indibidualki bai talde bezala.

EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

*Eduki
kontzeptualekiko*

- * ***Lehen Atalari dagozkion kontzeptuak:***
 - ♦ Geografia, giza–zientzia bezala, zer den garbi edukitzea.
 - ♦ Giza–Geografia eta Geografia fisikoaren arteko bereizketa.
 - ♦ Kontzeptu geografiko hauen ezagupena:
 - Eskala
 - Sestra–kurba
 - Urrunkidetasuna
 - Populakuntza sakabanatua
 - Populakuntza bildua
 - Puntu kardinalak
 - Klima atlantiarra
 - Erliebe karstikoa
 - Sektore ekonomikoak
- * ***Bigarren Atalari dagozkion kontzeptuak:***
 - ♦ Munduko populazioaren bilakaeraren faseak
 - ♦ Dentsitatea
 - ♦ Populazioaren banaketaren faktoreak
 - ♦ Teoria demografikoak
 - ♦ Berezko mugimenduak: Jaiotzak / Heriotzak / Berezko hazkundera.

- ♦ Migrazio-motak: Emigrazioa / Inmigrazioa / Nomadismoa / Larraldaketak / Pendelwanderungen / Opor-migrazioak / Landa-jendearen hiritartzea / Kolonizazioak / Langile-migrazioak.
- ♦ Adin eta sexuaren arabera egitura: Adin piramidea.
- ♦ Populazio aktiboaren arabera egitura.
- ♦ Herri garatu eta azpigaratuen arteko desberdintasun demografikoak.

* **Hirugarren Atalari dagozkion kontzeptuak:**

- ♦ Estilo arkitektoniko hauen ezagupena: Erromanikoa / Gotikoa / Euskal Gotikoa / Barrokoa / Modernismoa / Historizismoa: Neo-euskalduna / Arrazionalismoa.
- ♦ Hiri baten morfologia “irakurtzen” jakitea, jarraian lerrotzen diren aldi historikoen bereizgarriak ezagutuz:
 - * Erdigune historikoa: Gai honetan gehienbat Erdi Aroko eta Barroko garaiko aportazioak zein izan diren bereiztea.
 - * Zabalgunek burgesa: XIX. mende bukaera eta XX. mendeko lehen herenean gertatu ziren aldaketarik esanguratsuen jabetzea.
 - * Inguruguneak: Langileen auzoak, hiri-jardinak eta industriguneak nola joan diren sortzen jakitea.
- ♦ Gaur egungo hiri baten funtzioak zein diren erreparatzea.

Prozedurekiko
edukiak

- ♦ Mapa topografiko baten erabilpena (distantzia errealek ateratzen jakin, behin eskala ezagutuz gero.)
- ♦ Behaketa geografiko bat nola egin era zehatz, objektibo eta zientifiko batez.
- ♦ Datu demografikoen tratamendu estatistikoa: Honako grafika-motak burutzen jakin beharko lukete:
 - Grafika lerrobakarduna
 - Barren diagrama bertikala

- Barren diagrama horizontala
- Adin-piramidea
- Grafika sektorialak
- Hiruki formako diagramak
- ♦ Mapa adierazkorrak burutzen jakitea, emandako datuen arabera; ateratako mapak esanguratsuak beharko lukete izan.
- ♦ Arazo demografikorik sinpleenak erabakitzeke gauza izatea: Heriotza-tasa / Jaiotza-tasa / Berezko hazkundea...
- ♦ Lan artistiko baten iruzkina burutzeke gaitasuna lortzea. (Unitate didaktiko honetan arkitekturari dagokiona landu dugu soilik).
- ♦ Hiri batek dituen alde desberdinen “irakurketa” oinplanoan nahiz errealitatean egiteke gaitasuna erakustea.
- ♦ Txukuntasunez eta orden logikoz eginiko lanak aurkezteke gauza izatea.
- ♦ Metodologia zientifikoaren aplikazioa:
 - Hipotesiak bururatu
 - Datuak bildu nahiz esperientziak burutu
 - Ondorioak atera.
- ♦ Ingurugiroaren kutsadura eta hondamenaren aurrean kontzientzia kritikoa hartu.
- ♦ Konpromezu pertsonalak garatu, ekosistema naturalak zaintzeko.
- ♦ Munduko populazioaren desberdintasunez, kontzientzia kritiko eta aktibo baten lanketaren balorazioa.
- ♦ Konpromezu pertsonalen garapena, era guztietako diskriminazioak gaitzesteko.
- ♦ Ondare kultural eta artistikoaren balorazioa
- ♦ Norberaren herriko lan artistikoak zaintzeko eta errespetarazteko jarrera baloratu.
- ♦ Irizpide pertsonalen finkapena.
- ♦ Besteen irizpideak entzuten jakitea.
- ♦ Lan-taldeetan parte hartzea, aportazioak eginez.

Jarrerekiko
edukiak

- ♦ Norberaren irizpideen azalpenak, beti argudiatuak.
- ♦ Izpiritu kritikoaren lanketa, edozein informazioren aurrean.

EBALUAKETAREN BALIABIDEAK

- ♦ ***Autoebaluatzeko buruturiko galdesorta.***
Ikasleei luza dakiekeen itaunketa—eredu bat proposatzen dugu ondorengo lerroetan:
 1.— Zein iharduera izan da gehien gustatu zaizuna? Zergatik?
 2.— Zein, bestalde, gutxien gustatu zaizuna? Esprika itzazu zergatiak.
 3.— Irakurri ditugun testu guztietatik, zein izan da interesgarriena zuretzat? Zergatik?
 4.— Iharduerak burutzeko luzatu zaizkizun materialak egokiak iruditu al zaizkizu?
 5.— Egin ezazu irakaslearen balorapena, aurkezle, animatzaile eta aholkulari bezala.
 6.— Halaber, balora ezazu zure taldearen ekarria.
 7.— Era berean, egin ezazu irakaslearekin nahiz zure lan—taldearekin dituzun harremanen balorazioa, ikasketa—prozeduran eragina izan duten aldeko eta aurkako faktoreak seinalatuz.
 8.— Egin ez dugun beste ihardueraren bat proposatuko al zenuke hurrengo baterako?
 9.— Zerbait gehiago esatekorik ba al duzu, era honetako iharduerak hurrengo batean hobeto atera daitezen?.
- ♦ ***Irakaslearen klaseko egunerokoa.***
Ikaslearen jarrerak eta bilakaera jarraitzeko eguneko egun; baita ere, ikerketa lanean nola aritu izan den jasotzeko. Ikasle bakoitzak planteatu dituen ideiak eta egin duen lana baloratuak izango lirateke .
- ♦ ***Ikaslearen lan—kuadernoa.***
Bertan honako ariketa eta iharduerak jasoko lirateke:
 — Eraikinen marrazkiak

- Oinplano landuak
- Argazkiak (Teknologia Saileko irakaslearen laguntzaz).
- Emandako galdesorta guztiak beren erantzunekin
- Euren kontu bilatu behar izan duten informazio guztia bilduta. (Hiztegietakoa, entziklopedietakoa, liburuetatik jasotakoa, elkarrizketak, mahai-inguruetako ondorio pertsonalak...
- ◆ **Lan-kuadernoa honetarako ere iturbide dugu:**
 - Idatzien espresio zuzena zaintzeko.
 - Ihardueren ulermenaren lekuko bezala.
 - Zuzenak ez diren aurkezpenak zuzentzeko.
 - Lan-ohitura eta lan-metodologia sustatzeko.
- ◆ **Froga idatziak:**
 - * Froga objetiboak:
 - Demografiari buruzkoa.
 - Hirigintzaz.
 - Estilo arkitektonikoei buruzko ezaugarriez.
 - Lan artistiko baten aurrean, iruzkina burutzeko erabili den prozeduraz.
 - Hiri baten morfologia nahiz funtzioen irakurketaz.
 - * Gaiak lantzea: Esate baterako, hirigintzan egin den ikerketa-lana.
 - * Aplikazio-ariketak: Atal bakoitzari dagozkionak.
- ◆ **Ahoz eginiko partehartzeak:**
 - Espresio-gaitasuna.
 - Informazioaren sintesia.
 - Antolakuntzaren garbitasuna.

6.– ANIZTASUNAREN TRATAERA: CURRICULUM–AREN EGOKITZAPENAK

DESBERDINKATZE KURRIKULARRAK

Edukiarekikoak

- * **Eduki kontzeptualak arindu** eta, behar bada, era pertsonal batez esplikatu, kontuan hartuz kontzeptuek aurkezten dutela zailtasunik handiena.
- * **Prozedurazko edukiak gehitu**, ikasleak mekanizatu ditzan oinarrizko prozedurak (mapak, behaketak, adin–piramideak, grafikak...)
- * **Jarrerak**: Ikasle guztiek bereganatu beharko lituzkete honako jokabide eta balio hauek:
 - Irizpide pertsonal argudiatuak egiteko gauza izan daitezela .
 - Beste ikaskideen aurrean, irizpide pertsonalak azaltzeko gai izatea eta, era berean, besteen irizpideak errespetuz entzuteko gaitasuna: Honetan baitatza gizarte demokratiko baten sena.
 - Berengan jakin–mina ernaraztea.
 - Hiritar kritiko, tolerante eta parte–hartzaile aktibo izatera hel daitezela.
 - Egungo arazoez kontzientzia har dezatela: Gehikuntza demografikoaz, ekologi desorekaz, inmigrazio eta arrazismoari buruz e.a.

Erritmoarekikoak

Ikasle bakoitzaren bizkortasun nahiz mantsotasunari egokiro moldatzeko, beharrezkotzat jotzen da, erritmo aldaketak kontuan hartzea. Batzuetan ikasleen arazorik nagusiena ez da izaten horrenbeste ahalmenik ez edukitzea,

baizik eta berak duen erritmora behar den bezala egokitzen ez jakitea.

CURRICULUM–AREN BERRINDARTZEAK

- * **Taldekatze malguak:** Ikasleen partaidetza–zentzua areagotuz, beren arteko elkar–laguntza sustatzea komenigarria da, arazo gutxi dituenak gehiago dituenei lagun diezaien.
- * **Laguntza iharduerak:** Ikuspuntu panoramiko eta sintetikoak egiterakoan, komenigarria izango litzateke behin eta berriro kontzeptu eta prozedura berdinetara itzultzea.
- * **Tutoretzaren ezinbesteko lana:** Arazoak aurrikusteko eta gerora sor daitezkeen eragozpenak gainditzeko, tutoreak beste irakasleekin nahiz ikasleekin eduki behar duen harremana oso da garrantzitsua.

LARRUN BILDUMA

Tamaina 195 x 136 mm

1. Zazpigarren Alaba (Ipuin eta historio arabarrak)
2. Emakumeak idazle. (Antologia eta ohar zenbait. Itxaro Borda)
3. Euskal herriko alegia, ipuin eta kondaira bilduma. Barandiaran eta Irizar-tar Luis
4. Printze txikia. (Egilearen marrazkiekin). Antoine de Saint Exupéry
5. Urtubiko dama eta beste zenbait istorio. Pío Baroja
6. Lehen euskal gizona. J. M. Barandiaran
7. Santxo azkarraren parabola. Mark Legaseren arabera. Mark Legaseren arabera
8. Ipar euskal herriko legenda eta ipuinak (Ipuinak, fabulak, parabolak). Jean François Cerquand
9. Ipar euskal herriko legenda eta ipuinak (Basajauna, laminak, tartaroa...) J. F. Cerquand
11. Anark-Herria. Mark Legasse, Jakue Pascual
12. Infante zendu batendako-pabana. Itxaro Borda. Mark Legasse
13. Behin errementari batek. Garibaiaren istoriotxoak
14. Bi kontu Petersburgeko. N.V. Gogol
15. Bost istorio itsaaoko. Jack London
16. Udararen betaurreko beltzekin. Itxaro Borda
18. Bost istorio lazgarri. D. Defoe. C. Dickens. M. R. James. E. A. Poe. D. A. M. de Sade
19. Bertsoak pudente, Tormesko lazarotxoak kontua. Serafin Baroja
20. Amairu ipui arabiark
21. Argi bila (Ipuinak). Xabier Galarreta
22. Monsieur Poirot-en ikerpenak. Agatha Christie

23. Botila batean aurkitutako eskuizribua eta beste ipuin batzuk. E. Allan Poe
24. Bihar, haur idiotak. Aurrerakuntzaren aurrelaria. Joseph Conrad
25. Murruaz bestaldean (Ipuin). Xabier Galarreta
26. Dr. Jekyll eta Mr. Hyde. R. L. Stevenson
27. Hamar Beltx. Agatha Christie
28. Azeria. Gatazka baten bilakaera eta amaiera. D. H. Lawrence
29. Deidarrak. Mikel Atxaga
30. Hiri bat nola irakurri ikasi nahian. Hernani aztergai egungo arazo demografikoak eta hirigintz-bilakaera arakatzeko. R. Leturiondo. Ma. Inés Flores. Ma. José Valverde

Hernaniko Institutuan hainbat urteetan irakaskuntzan arituak garenez, Herriaren errealitate geografiko eta historikoa aztertu ahal izan dugu. Hona hemen gure lanaren emaitza.

Halaber uste dugu erabilitako metodologia beste zenbait herri aztertzeko baliogarria izan daitekeela. Hau izango litzateke irakaskuntzari egin nahi izan diogun eskaintza.

ISBN 84-7148-321-1



9 788471 483218



Ipar haizea bilduma